

DATORRENA

Panorama iluna

ISIDRO ESNAOLA > 3

ANDONI CANELA: «Nire lanak egiteko ero puntu bat behar da, ez dut konpetentziarik eduki» > 22

2021eko abenduaren 11a | XV. urtea • 752. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BARNAHUS EREDUA, SEXU ERASOAK JASAN DITUZTEN HAURRENTZAT ATERPE OSOA > 12

GAUR8



**Talibanen agintari goren
ezkutuaaren inguruko
zurrumurruak** 04

**Kanarietarako bide arriskutsuan
hildakoen eta desagertuen bila** 08

**Barnahus ereduko etxeak, sexu
abusuen aurreko babesa** 12

**«Medikuaren oinarritzko gaitasun
profesionalak», pertsona bere
osotasunean artatzeko liburua** 17

**Elkarrizketa: Andoni Canela,
argazkilaria eta kazetaria** 22

**Senegaldik Hernanira, beste
mundu bat ezagutu eta berea
ezagutaraztera** 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Panorama iluna

10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Beldurren fabrika

11 **Iñaki Altuna:** «Enemigo
público número uno porque no
aguantas...»

16 **Unai Gaztelumendi**

20 **Itziar Elizondo:** Errituak

21 **Iker Barandiaran:** A zer
jendilaje mota!

27 **Miren Azkarate Badiola:**
Egunero zerbait egingo bagenu

27 **Antton Izagirre:** Begirada
iheskorak

30 **Txelo Ruiz eta Montse
Maritxalar:** Adimen artifiziala
sentimenduetan



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Panorama iluna

Urtea amaitzear dagoela, balantzeak egiteko tenorea iritsi da. Edozein dela ikuspegi, gauza bat argi dago: pandemiaren irteerari buruzko aurreikuspen optimistak ez dira betetzen ari. Txertoarekin normaltasunera bueltatuko ginela esan zuten eta ez da horrela gertatu. Are gehiago, pandemia gainditzetik urruti gaude oraindik. Beharbada herrialde boteretsuetan presa gehiegi zegoen, eta mundu mailako txertoen zentzuzko banaketa egin beharrean, ikuspegi berekoak gailendu ziren, eta orain olatu berriak eta aldaera berriak ditugu. Munduko liderrek ez dute ulertu salbazio orokorrik ezean norberaren salbazioa ere ez dagoela ziurtatua. Eta horrek perspektiba oso iluna ematen dio bestelako erroka globalak gainditzeari, esate baterako, larrialdi klimatikoari. Izan ere, joko berdinean ari dira: norberak bere ekonomia eta bizimodua salbatu nahi du, naturarekin zer gertatzen den begiratu gabe.

Pandemiaren berpizte horrek kalkulu guztiak berrikusi beharra ekarri du. Pesimismoak gora egin du eta horrek bultzatuta, berriz ere, nor bere salbazioa bilatzen du. Lehengai eta osagaiak iristen ez direla-eta, itxaron

beharrean, gehiago eskatzen da, eta horrek defizita areagotzen du; kontainerrak falta direla-eta, badaezpada ere, gehiago pilatzen dira, eta urritasuna handitu... Komeni da gogoratzea lehenengo metaketa txertoekin gertatu zela eta gaur-gaurkoz inork ez duela zenbaki zehatzik eman erabili gabe zenbat txerto galdu diren munduan.

Iaz banketxeek eta multinazionalak dibidendu gutxi banatu zituzten eta aurreten denbora aurrera joan ahala perspektibak okertzen joan dira. Etekinak hala edo nola osatu beharra dagoela sumatzen dute eta horrek prezioen igoera bultzatu du. Eta erraza dute, gainera. Merkatu libre batean korporazio handienek agintzen dute eta ahalmen osoa dute prezioak igotzeko. Hori da, hain zu-

zen ere, gertatzen ari dena. Etekinak borobilduko dituzte, baina jokaldia oso arriskutsua da. Dirua denok onartzen dugun tresna da eta zentzu horretan ondasun publikoa da. Horregatik, inflazioa ondasun publiko baten pribatizazio gisa uler daiteke. Izan ere, enpresek nahiko erraz dute egoera kudeatzeko –prezioak igoz– baina herritar xumeek, soldatak eta pentsioak jasotzen dituztenek, ezin dituzte euren diru sarrerak abiadura berdinean igo. Finean, aberastasuna xurgatzeko boteretsuen beste modu bat da, baina kasu honetan instituzio publikoen gaineko herritarren konfiantza hondatuta geldituko da.

Ez dute soldatek eta pentsioek soilik balioa galtzen, aurrezkiek ere bai. Boteretsuek euren aurrezkiak inbertituta dituzte, ondare higiezinetan edo inbertsio finantza-

Jokaldia oso arriskutsua da. Dirua denok onartzen dugun tresna da eta zentzu horretan ondasun publikoa da. Horregatik, inflazioa ondasun publiko baten pribatizazio gisa uler daiteke

rioetan. Herritar xumeen aurrezkiak, aldiz, kasu askotan kontu korrontean daude. Gainera, aurreko krisiaren jipoirenekin ostean, ez dago fidatzeko moduko eskaintzarik.

Momentu honetan, merkatuaren printzipioei jarraituta norbera bere interes partikularren arabera ari dela, baina ez da hainbeste aldarrikatu den guztion onura inondik inora sumatzen. Beste behin, demostratzen ari da merkatu librearen ez duela balio interes orokorra erdiesteko, ezinbestekoa dela estatuaren parte-hartzea. Hala ere, bazter guztietan estatuaren arteko tentsioen gorakada ikusita, ematen du mundu ikuspegi berekoi hori gailendu dela maila guztietan. Eta bost axola mundua pikutara badoa. Panorama iluna. •

NON DA HIBATULLAH?

Talibanen agintari goren ezkutuarien inguruan zurrumurru asko daude

 **JENDARTEA** / Dabid Lazkanoiturburu

Urriaren 30eko arratsaldeko lehen orduak Kandaharren, Afganistango hegoaldean kokatutako talibanen erregimenaren «itzaleko hiriburuan», eta zurrumurru bat zabaldu da.

Agintari gorenak hitzaldia eman omen du herriko eskola koranikoan. Egia balitz, Hibatullah Akhundzadak 2016an mugimendu talibanaren agintari goren hautatu zutenetik egin-dako jendaurreko lehen agerraldia litzateke.

Berandu, baina Kabul, Afganistango hiriburuan, talibanen Estatu Gorenak Akhundzadaren agerraldia baieztatu, eta 10 minutu eta 30 segundo irauten duen audioa kaleratu du.

Ahotsa ozen entzuten da. «Alak saritu dezala Afganistango herria, hogeitaz luzez fedegabeen eta zapalkuntzaren aurka borrokatu delako». Adineko gizon baten ahotsa da, oihartzun eta bedeinkapenak estalia.

Baina, benetan bizirik al da *Emir al Momimin* (fededunen

Azken lau hilabeteetan agintari ikusezin batek gidatzen du talibanen Afganistango herrialdea. Bere hegoaldeko gotorlekutik, Hibatullah Akhundzada mulla eta rigoristen agintari gorenaren nondik norakoak sekreturik ezkutuenak bilakatu dira. Miresten duen jendearen gainetik, bizirik ez ote dagoen susmoa hedatzen hasia da.

printzea) ohorezko goitizena duen Hibatullah Akhundzada, talibanen agintari goren?

Al Qaeda berak ere Afganistango emirtzat duen agintari erlijiosoaren omen diren idatzizko mezuak baino ez dira kaleratu ordura arte, jai islami-koetan kaleratuak, hain zuzen.

Berea omen den aurpegia erakusten duen argazki bakarra dago gainera, 2016an argitaratutakoa. Bizar grisa, sudur luzea eta begirada iluna duen 40-50 urte inguruko gizona. Talibanek aditzera eman dutenez, duela 20 urte atera zen argazkia. Beraz, egun 60-70 urte inguru lituzke.

Eskuinean, Hibatullah Akhundzada talibanen agintari gorenaren ustezko argazki bakarra. Beste irudian, mutilak Korana ikasten urrian agerraldia egin zuen madrasan, Kandaharren. JAVED TANVEER

«Bizirik dago, eta osasuntsu. Kandaharren bizi da, eta bertatik zuzentzen du mugimendu talibana», ziurtatzen dute gertu-gertukoek. Abuztuaren erdialdean talibanez boterea berreskuratu zuten arte ia inork ez zekien non demontre zegoen.

GAZTE PRODIJIOA

Panjwai eskualdean, Kandaharretik gertuko bailara lehorrean, mundu guztiak ezagutzen du Akhundzada jaio zen herrixka. Bera eta bere arbasoak ospe handiko teologoak dira.

Borrokalari talibanak motorra piztu eta prest daude, tur-

banteak airean dunak zeharkatuz, emirerri islamikoaren agintariaren jaioterri den Sperwan herrixkaraino gidatzeko.

Hibatullah (arabieraz, «Alaren oparia») *madrasa* edo eskola koraniko bateko zuzendari baten semea da (Akhundzada abizenak hori esan nahi du, «madrasaren zuzendaria»).

Bere familia Nurzai klanekoa da, Durrani tribu konfederazioan. Durranitarrena tribu multzorik boteretsuena da paxtun etniaren artean. Afganistango erregeak, Hamid Karzai presidente ohia eta talibanen gehiengo durranitarrek dira. Afganistandarren %40-50 paxtunak dira; beraz, etnia jendetsuena da.

«Sobietarrek herrialdea inbaditu zutenean (1979ko amaieran) borroka Sperwan herrixkaraino iritsi zen eta Hibatullah Pakistanera ihes egin zuen», gogor dakar Niamatullah, eskualdean jaio zen taliban gerillariak. Berak Hibatullah Akhundzada izan zuen maisu eta «nire bizitzako oparirik politena izan zen», gaineratu du.



Armada Gorriaren aurka zuzenean borrokatu zela dioenik ere bada, baina hasieratik sumatzen zuen gerra baino gustukoago zuela erlijioa. Quetta hirian (Balutxistango hiriburua, baina Pakistanen mendean), jakitun ospea lortu zuen eta *Sheikh al-hadith* titulua lortu zuen, Mahoma profetaren hitzen alorrean adituenei onartzen zaien izendapena.

1990eko hamarkada hasieran, matxinada islamista sobietarren okupazioari gailendu ondoren etxera itzuli zen Hibatullah, 30 bat urte zituela. Bospasei urte eman zituen Sperwaneko meskitan. Bertako zaharrenek gogoratzen dutenez, 65 urte dituen Abdul Qayumek, esaterako, «inguruko herrietatik eta Pakistanetik hainbat *ulema* (lege islamikoan aditua) etortzen ziren, berarekin egon eta ikasgaiak entzutera».

TALIBANEN ALTXAMENDUA

Handik gutxira, gerrak bere etxeko atea jo zuen berriro ere eta talibanen (Koranaren ikasleak) mugimendua altxatu egin zen 1994an, okupazioak utzitako hutsunean gerra gizonen arteko liskarrek eragin zuten kaosaren aurka.

Omar mulla zen talibanen agintaria eta Hibatullah kiderik gertukoenetakoa bilakatu zen haren heriotza arte, 2013an.

Pakistanen zerbitzu sekretuen (ISI) ezinbesteko laguntzarekin, talibanek emirerri islamikoaren ikur zuria altxatu zuten Kabul 1996an, eta bera ere garaileen artean zegoen.

Hibatullah Akhundzada gazteak, teologian adituak, gora egin zuen erregimen berriaren baitan. BBCren zerbitzu afganistandarrak aditzera eman zenez, 1996tik 2001era bitartean justizia auzitegien arduradun nagusia izan zen.



Jamia Darul Aloom
Hakimiako madrasaren
sarrera, bi talibanek
babestuta.
JAVED TANVEER

Haren agintepaan ezarri ziren gorputz zigorrak, azoteak eta anputazioak tartean. Talibanek lege islamikoaren inguruan egiten zuten irakurketara jotzen zuten nazioarteko legediak debekatzen dituen zigor penal eta krudel hauek justifikatzeko.

Ez du, beraz, talibanen agintari espiritualak erreputazio ona giza eskubideen arloan, batez ere emakumeei dagokienez. Haren aginteak beldurra sortu du askorengan, eta talibanak aldatu direla dioten mezuen sinesgarritasunik eza areagotu du.

2001ean Kabul hiriburuko Auzitegi Militararen buru izendatu zuten.

Urte hartako abenduan hasi zen AEBen eraso, eta inbasiotik ihesi, Quettara itzuli zen eta erbesteko talibanen justiziaburu bihurtu zen. Bitartean, mujahidinen belaunaldi berria prestatzeari ekin zion, batez ere erlijio kontuetan.

Maulana izendatu zuten orduan, eta berak sinatu zituen talibanen *fetwa* edo ediktu islamiar gehienak, 2016an Mohammad Mansour agintari gorenaren ordezkatu zuen arte.

Mansourrek Omar mulla ordezkatu zuen, 2013an gaitzak jota hil zenean. Hala ere, talibanek ez zuten Omarren heriotzaren berri eman hurrengo bi urteetan, 2015era arte, eta Afganistango zerbitzu sekretuek (NDS) iragarri eta gero onartu behar izan zuten hilda zegoela.

Egoera horrek izugarritzko ezinegona eta mesfidantza sortu zuen talibanen militanten artean eta, haserrearen eraginez, batzuek garai hartan mundu osoan benetan indartsua zen Estatu Islamikora jo zuten, hain zuzen ere, ISIS Nangarharren, Afganistanen ekialdean, gotorlekua sortzen ari zen une hartan.

AEBen drone batek Mansour erail zuen 2016an eta Hibatullah izendatu zuten talibanen buru. Erlijio kontuetan sortzen zuen errespetua eta Qettako *shura* edo talibanen asanbladan zuen ospea baliatuz, barne desadostasunak gainditzeko lortu zuen. Shura hartako kide guztien leialtasuna lortu zuen, tartean Mohamed Yaqoob Omarren semearena, Mansourren izendapena begi txarrez ikusi zuena bere aitaren ordekoa izatea nahi zuelako.

Omarren eta Mansourren heriotzen ostean, «bera izan da talibanen grabitate zentroa, taldea batuta mantentzen jakin izan du», goraipatu du Pakistanen agintari taliban batek.

Hartara, Akhundzadak bere alboko izendatu zuen Yaqoob, Abdulghani Baradarrekin (egungo erregimenean bigarren kargurik inportanteena) eta Sirajjudin Haqqanirekin batera.

Hiru horiek osatzen dute egun Gobernu talibanaren muina.

ZER EGITEN DU GAUR EGUN?

Eta, eskema honetan, zer egiten du Hibatullah Akhundzada agintari gorenak?

Gobernu berrian izendapen bakoitzak bere sinadura du, eta garrantzizko erabaki guztiek bere onespena behar dute.

Talibanek haren izenean iragarri zituzten Afganistango Emirerri Islamikoaren lehen pausoak eta trantsiziozko gobernua osatzeko negoziazioak haren begiradapean egin zirela ziurtatu dute.

Era berean, erregimen berriaren oinarriak iragartzen zituen mezua berak sinatu zuen. Bertan, *xaria* edo lege islamiarra errespetatzea erregutzen zien ministroei eta «elkarren arteko errespetuan» oinarritutako harreman «sendo eta osasuntsuak» aldarrikatzen zituen inguruko herrialdeekin eta mundu osoarekin.


«Ikusazue, jendaurrean inoiz agertzen ez den gizonak herrialde bat konkistatu du», dio ironiaz taliban batek.

Halere, pasa den irailean talibanen gobernua iragarri zenean haren izena inon ez agertzeak zurrumurruak areagotu zituen.

Bai, egia da. Gerrillen agintariek gertatzen den bezala, ia bere bizi guztia klandestinitatean eman du. Joera hori are handiagoa da Afganistango agintari-erlijioso-gerrillarien artean.

Omar mulla bera ere gutxitan agertzen zen jendaurrean, are gutxiago arrotzen aurrean. Eskasak dira bere argazkiak, gerran galdu zuen begia estaltzeko partxea aurpegian duela. Baina behintzat adierazpenak egiten zituen eta irratian elkarriketak egiten zizkieten.

Aititik, 20 urteetako gerra libratu ondoren –berak omen



Agintari gorenaren jaioterria, Sperwan. JAVED TANVEER

zuen aurreko udako azken erasoaldi militarra gidatu Kandaharretik, urte hasieran jaioterriira itzuli eta gero– eta AEBei gailendu ondoren agintari gorenaren agertu ez izanak zurrumurruak susmo sendo bihurtu ditu.

Duela urte batzuk atentatu baten hil zutela zabaldu zen.

Batzuen ustez, Gobernu afganistandarrarekin negoziatzearen aurka irmo azaldu zen. Besteek diotenez, AEBekin Dohako elkarrizketak berak zuzendu zituen. Lau hizkuntzatan jaioa da

2017an zuhaitzak landatzeko dei egin zien afganistandarrei, ingurumena babesteko. Ez ditu teknologia berriak maite eta nahikoa du telefonoarekin eta eskutitzekin

Izan ere, Hibatullahk gutxienez atentatu saiakera bat pairatu zuen Qettan, bere ikasle batek ziurtatu zuenez. Bere anaia gazteena, Ahmadullah, meskita batean sermoia ematen ari zela hil zen beste atentatu baten ondorioz. Bere bi seme zauritu zituen Qettatik gertu izan zen erasoak. NDSko zerbitzu sekretuetako iturriek, geratzen diren iturri apurrak, ziurtzat jotzen dute 2019ko atentatuan hil zela. Kanpoko zerbitzuek ez dute aukera hori baztertzeko. CIAk eta Pentagonoak, hala ere, ez dute horretaz ezer esaten.

Talibanen artean ere ez dira gutxi hilda dagoela ziur daudenak. Omarren heriotzaren inguruko isiltasuna ez dute ahaztu.

Hibatullah bera iaz covidak jota hil zela ere ezeztatu behar izan dute talibanek.

AGERRALDIA

Susmo horiek guztiak uxatzeko zabaldu zuen erregimenak urriaren amaieran haren agerraldiaren audioa.

Kandaharreko auzorik txiroenean, Jamia Darul Aloom Haki miako madrasako atea zaintzen dute bi talibanek, gero eta jende gehiago hurbiltzen delako Hibatullah jendaurrean agertu omen zen lekura. «Hiru armagizon zituen alboan eta bera ere armatua zegoen», dio Massum Shakrullahk, madrasako segurtasun arduradunak.

«Auzo txiro baten madrasa aukeratu zuen azken 20 urteetan milaka gazte taliban eta martiri bihurtu zituenak», gaineratu du Saeed Ahmed mullak, 600 neraberi Korana irakasten dien zentroaren zuzendariak.

Reuters agentziari jarraituz, Hibatullahen semeetako batek, Abdul Rahmanek, bere buruaz beste egin zuen Helmand probintzian Armadaren aurkako eraso suizida batean.

«Bera zen arratsalde hartan hitz egin ziguna! Guk begiratu genion eta negar egin genuen». gogoratu du Mohammed 19 urteko gazteak.

Mohammed Musak, 13 urtekoak, ziurtatu du 2016tik dabilen argazkiko aurpegiarekin antz handia zuela, nahiz eta «100 edo 200 metrora» egon. Lekuko guztiak bat datoz zuriz jantzita zegoela, turbante txuribeltza buruan.

Ez da, hala ere, argazkirik edo bideorik, talibanek aurrez mugikor guztiak konfiskatu zizkietelako bertan zeuden guztiei.

«AHAL DENEAN»

Orain arte klandestinitaterik zorrotzenean jarraitzen badu, erailko dutelako beldurragatik da, dio erregimenak.

Izan ere, AEBek herrialdetik atera badira ere, talibanak droneen erasoan beldur dira eta Estatu Islamikoaren (ISIS) mehatxua ere hor dago.

Hala ere, adituen ustez, hilda balego talibanek ez lukete orain iragarriko, Omarren kasuan ia eztanda egin zuen ondorengotza gerra hura gogotan, edo gutxienez barne zatiketa ez areagotzeko. Egoera horretan ISISek dena izan-go luke irabazteko.

Horrela balitz, egoera egonkortu arte eta nazioartean errekonozimendua lortu arte itxarongo lukete.

Talibanek ukatu egiten dituzte «tontakeria horiek guztiak» eta euren agintari gorenaren mundu osoaren aurrean noiz agertuko den galderari erantzun anbigua ematen diote: «Ez da beharrezkoa *Sheikh Sahib*-entzat agertzea, horrela ere ondo agintzen duelako», ziurtatu du gobernuaren bozeramaile Ahmadullah Waseeq-ek. «Ahal denean erakutsiko dugu».

KANARIETAKO TRAGEDIA

Atlantikoko bide arriskutsuan hildakoen eta desagertuen bila

 MIGRAZIOA / GAUR8

Afrikako ipar-mendebaldetik Kanarietara doan bide arriskutsuan itsasoratzen diren migranteen kopuruak gora egin du. Eta, ondorioz, hildakoen eta inoiz agertuko ez diren kopuruak ere bai. Senideak bizirik dauden jakiteko edo gorpuak bilatzeko ahaleginak amesgaizto bihurtzen dira askotan. Tragediak erreskatatzaileak ere jotzen ditu.

Emaztearen eta 6 urteko alabaren berririk ez zuela ikusita, Kanarietara abiatu zirenetik hamar egun igaro zirenean, Hamidok, Estatu frantsesean bizi den Boli Kostako herritarrak, hegazkin bat har-

tu zuen artxipelagora. Hantxe jakin zuen emaztea bidean hil zela, eta alaba ere bai, ama nola hil zen ikusteak traumatizatuta.

«Gizon hori gurekin harremanetan jarri zen, inork ez ziola informaziorik emango etsita zegoelako», dio Helena Maleno Caminando Fronteras GKEko ar-

Mamadou gazte maliarra, «ontzien hilerrian», bere bidaia gogoratzen.
Lluís GENE | AFP



duradunak. Afrikako ipar-mendebaldeko kostaldea eta Kanariak banatzen dituen migrazio bide arriskutsuan hildako edo desagertutako migratzaileen familientzat, senideen patuari buruzko informazioa lortzea amesgaiztoa izaten da askotan.

Mediterraneoko kontrolengatik eta covid-19aren pandemiaren inpaktuagatik, azken bi urteetan gora egin du Mendebaldeko Saharatik zein Senegaleetik (1.500 kilometro hegalderra) Kanarietara gainezka doazen ontzietan iritsi nahi duten migratzaileen kopuruak.

Ondorioz, hildakoen kopuruak ere gora egin du.

Nazioarteko Migrazio Erakundeak (IOM) 2019an 202 heriotza erregistratu zituen eta aurren, berriz, 937. Bide horretan 1997tik izan den «urterik hilgarriena» izango litzateke, IOMek «Desagertutako migratzaileak» proiektuan eta APDHA GKEak jasotako datuen arabera.

NBERen agentziak berak aitortzen du benetako datuak are larriagoak direla. Caminando Fronterasen arabera, urteko lehen seihilekoan 2.087 migratzaile hil dira, eta 2020an, 2.170.

«Urte izugarria izan da, migratzaileek badakite itsasoan bizia gal dezaketela», nabarmendu du Helena Malenok.

HILKUTXA BIHURTUTAKO ONTZIAK

Migratzaile askorentzat, bizimodu hobe bat lortzeko Europara eramatea espero duten ontzi horiek hilkutxa bihurtu daitezke.

«Banekien ontzi hau hartzea ez zela gauza ona, baina Malin gerra zegoen», adierazi zuen Mamadouk. 17 urte zituen Nuadhibu (Mauritania) utzi zuenean, 2020ko abuztuan, beste 58 pertsonarekin batera.

Hiru egun itsasoan eman eta ur eta janari erreserbak agortuta zeuden. Ontziko hainbat lagun

hiltzen hasi ziren. Hamaika baino ez ziren bizirik atera. Salbatzaileek bost gorpu aurkitu zituzten ontzian; gainerakoak kareletik bota zituzten, desagertuen zerrenda luzera.

Gazteak isilik begiratzen ditu pateren zurezko kasko zaharrak, Kanaria Handiko Arinagako portuan dauden migratzaileen «itsasontzien hilerrian» noraezean dabilela, bere bi asteetako itsas oroitzapen traumatikoetan murgildurik.

«Pertsona horiek ez lukete hil behar», dio Teodoro Bondyale Kanarietako Afrikako Elkarteen Federazioak (FAAC), udaberrian hil zen bi urteko haur maliar baten hilobiaren ondoan.

Peluxezko hartz bat dago hilibian. Plaka batean hitz hauek: «Beti egongo zara nire bihotzean, alaba». IOMren arabera, aurtun gutxienez 83 haur hil dira migrazio bidean.

«Migrazioa normaltasunez egin ahal izango balitz, pasaportea eta bisa erabiliz, jendeak ondo bidaiatu eta bizitza hobea izaten saiatu ahal izango luke», baina «migrazio bide arriskuetsuetan zehar eskrupulurik gabeko trafikatzaileekin bidaiatzera kondenatzen ditugu», gehitu du Teodoro Bondyalek.

ONTZI GEHIAGO, HILDAKO GEHIAGO

«Egoera gero eta okerragoa da, itsasontzien eta hildakoen kopurua iaz baino askoz gehiago hazi da aurtun», azpimarratu du Daniel Arencibia abokatuak, migrazio gaietan adituak.

Arencibia desagertuak bilatzeko bulego zentrala sortzea eskatzen du. Izan ere, «ez dago ikerketaz arduratzen den erakunderik, beraz, familiak arduratzen dira horretaz (...)». Baina askotan ez dituzte inoiz aurkitzen», azaldu du.

Jose Antonio Benitez apaiza saiatu da, agintariekin eta GKEe-



Manuel Capa Itsas Salbamenduko langilea «Guardamar Polimnia» itsasontzian. Lluís GENE | AFP

kin dituen harremanei esker, familia horiei laguntzen beren senideei buruzko informazioa lortzen, ospitaleekin edo atxikitze zentroekin harremanetan jarritz.

«Gorpua aurkitu arte, ezin duzu ziur jakin norbait hilda dagoela», adierazi du.

Joan den hilabetea, estatu espainolean bizi diren marokoar batzuk harengana joan ziren hamar bidaiari hilda zeramatzan ontzi baten erreskatearen ondoren. «Hainbat egun eman dituzte ospitaleetara joaten, baina inork ezin izan die erantzunik eman, ahaidetasun lotura frogatu behar zutelako», azaldu du Benitezek, burokraziaren trabak salatuz.

Azkenean, gorputegian aurkitu zuten erantzuna.

Ekainaren erdialdetik, Caminando Fronterasek 570 familiari lagundu die senideak aurkitzen. Espainiako Gurutze Gorriak 359 eskaera jaso ditu.

Baina itsasoan hildako gehienak ez dira inoiz agertuko.

Zer gertatzen zaie familia horiei gorpurik ez dagoenean? Beste modu batzuk bilatu behar dira beren senideei buruzko

informazioa lortzen laguntzeko, Jose Pablo Baraibarren ustez.

Antropologo forentse honen asmoa Kanarietako Gurutze Gorriaren proiektu pilotu bat da, eta horren helburua da argitzea itsasontzietan nor zihoan eta zer gertatu zen itsasaldian zehar, hainbat informazio iturri erabiliz. «Familiak jakiteko eskubidea dute, eta eskubide hori bermatu behar diegu».

ERRESKATATZAILEAK

Kanarietako kostaldera ontzi bat iritsi eta espainiar kostazainek eszena mingarri ezagun bat aurkitzen dute: zazpi gorpu pilatzen dira bizirik geratu diren

askoren ondoan. Horietako hiru ere hil egingo dira.

Dakhlatik abiatuta, Mendebaldeko Saharan, 62 etorkin iparrafrikar ontziratu ziren.

Manuel Capa 50 urteko Itsas Salbamenduko langilea da, «Guardamar Polimnia» Arguineguingo portuan dagoen 32 metroko ontzi laranjan, eta azaroaren erdiko gau latz hura bereziki gogoratzen du.

«Normalean, sukaldaria ez da zubira igotzen salbamenduetan, baina gainezka geunden eta deitu egin behar izan genion, leher eginda geundelako gorpuak igo eta igo», azaldu du CGT sindikatuko ordezkari ere baden itsasgizon honek.

«Hasieran, shockari eusten diozu, baina gero eszena gogoratzen duzu une batzuetan, pertsona horien drama eta sufri-mendua gogoratzen dituzu. Zaila da ulertzen», jarraitu du, malkoak eutsi ezinik.

«Arazoa migrazio politikak dira, horrelako bidaiak bultzatzen dituztelako, eta hortik datoz hildakoak», salatu du.

2019tik aurrera Kanarietara iristen ari diren migratzaileen kopuruak gora egin du. 2021eko azaroko lehen bi asteetan 1.194 pertsona lehorreratu dira 28 itsasontzitan, Espainiako Barne Ministerioaren arabera.

Capak dioenez, handik bi gauera, beste erreskate baten ondoren, sendagileek edo itzultzaileek «Guardamar Polimnia»-tik lehorreratzen lagundu zieten manta gorrietan bilduriko dozenaka bizirauleri. Ibilera balantzakorra zuten, itsasoan bederatzi egun noraezean egon ondoren. Plastiko zurizko hileta poltsak ere porturatu zituzten.

«Oso bidaia zaila da, migrazio bide arriskutsuenetakoa», azaldu du Paula Atocherok, Arguineguinera iristean jendea orientatzeaz arduratzen den erizainak.

Urte izugarria izan da, migratzaileek badakite itsasoan bizia gal dezaketela. Bizimodu hobea lortzeko Europara eramatea espero duten ontzi horiek hilkutxa bihur daitezke

Ekainaren erdialdetik, Caminando Fronteras erakundeak 570 familiari lagundu die senideak aurkitzen. Espainiako Gurutze Gorriak ere 359 eskaera jaso ditu

Caminando Fronteras GKEaren datuen arabera, aurtengo lehen sei hilekoan Atlantikoko bidean 2.087 migratzaile hil dira. 2020an, beste 2.170 pertsona hil ziren

«Esperientzia traumatiko asko izan ditugu. Ez dago salbamendurik traumarik gabe. Izan ere, sarritan huts egiten dugu bizitzak salbatzeko ahaleginetan»

Horietako asko hipotermia larriak jota iristen dira, batzuetan beste patologia batekin lotuta: deshidratazioa. Izan ere, ez jatekorik ez edatekorik ez dutenean, itsasoko ura edaten hasten dira.

Beste batzuek, berriz, giharretako hantura jasaten dute. Odol zirkulazioa eragozten du horrek, eta gorputz adarren anputazio ekar dezake, baita heriotza ere.

Paula Atochero martxoan bi urteko neska maliar bat salbatzen etsi-etsian saiatu zen pertsonetako bat da. Azkenean, bost egun geroago hil zen.

«Esperientzia traumatiko asko izan ditugu Arguineguingo portuan. Ez dago salbamendurik traumarik gabe. Izan ere, sarritan huts egiten dugu bizitzak salbatzeko ahaleginetan», adierazi du.

Migrazio bidean lehen lerroan egoteak kostu emozionala du erreskatatzaileentzat.

Manuel Capak bere lankide bat ekarri du gogora; izan ere, erreskate batean ontzi batera salto egin eta gorpu artean aurkitu zuen bere burua.

Iaz, Itsas Salbamenduak telefono linea bat jarri zuen bere taldeentzat, egunean 24 ordutan psikologoekin harremanetan jartzeko.

«Marinelen artean gizon gorrak omen gara, gizon indartsuak, eta askok ez dute sentitzen dutenaz hitz egin nahi. Malko bat isurtzea ahulezia bat da. Baina ez da horrela, normala da bihotza eta emozioak izatea», nabarmendu du Manuel Capak.

Kanaria uharteetan dauden 12 ontzietako gehienek hiru pertsonako tripulazioa dute, eta horrek esan nahi du bakarrik zubian dagoen marinela har ditzakeela erreskatatutakoak.

Beste lagun askok lehorrean eskaintzen dute euren laguntza, esate baterako, Jose Antonio Benitezek. Immigrazioaren dramaren parte hartzeak bizitza aldatu dio elizgizon honi: irakaskuntzan emandako bizitza utzi du iristen ari diren migratzaileei laguntzeko.

Sevillan bizi zela, 57 urteko erlijiosoa ez zen erabat arrotza migratzaileen egoerarekin, eta gazte batzuk Marokora eramanean ohi zituen, Tangerrera, sentsibilizatzeko.

«Konturatu naiz migrazioari buruzko aurreiritzi asko daukela, eta aurreiritziak ez dira lehertzen errealitatearekin aurrez aurre jarri arte», azaldu du.

Espainiara itzultzeko bidaia haietako batean, apaizak eta nerabeek txalupa txiki pneumatiko bat ikusi zuten, itsaso aztoratuak astindutakoa, bost lagun barruan zituela.

Laguntzeko asmoz, haien ontziak hurbiltzea lortu zuen, bai-

na ontziarekin talka egin zuen. «Denak uretara erori ziren. Oihuka hasi ziren, baina alferrik, eta itotzen ikusi genituen», kontatu du. Hiru hil egin ziren, bi salbatu ziren. Tripulazioko kide batek bere burua bota zuen laguntzen saiatzeko, baina hura ere hil egin zen.

«Tragedia erabatekoa izan zen, behin eta berriz ikusten duan drama bat. Hori izan da dena aldatu duen esperientzia», jarraitu du apaizak.

Gero migratzaileei denbora osoa ematea erabaki zuen eta 2019ko udan Kanaria Handira joan zen bizitzera, eta iritsi berriei edo familiakoei laguntzen die itsasaldian hildako ahaideen

bila. Adelina Abdolak ere, 56 urtekoak, bere bizitzan kapitulu berri bat irekitzea erabaki zuen apirilean, migratzaileei babesa adierazteko manifestazio egin ondoren.

Kanaria Handira aterperik eta ezer gabe etengabe iristen ari zirenekin kezkatutik, berak zer egin zezakeen galdetzen zion bere buruari Las Palmasetik gertu dagoen La Isleta portu txiki-ko bizilagun horrek.

Manifestazio hartan, «pertsona zuriak baino ez ginen han, eta bat-batean migratzaileak hondartzatik etorri ziren kartelak eskuetan zituztela, esanez: ‘Aukera bat besterik ez dugu nahi’, eta negar zotinka lehertu nintzen. Han gazte batzuk etxean hartzea erabaki nuen», gogoratu du.

Somos Red migratzaileei laguntzeko elkarteari esker, Modu eta Mamadou 26 urteko bi senegaldarrak hartu zituen eta «fami-
liaren bizitzaren parte izan dira oso azkar».

«Orain familiakoak dira eta hainbeste ematen didate ordainetan! Gazteak dira, ez dute Gobernuaren laguntzarik eskatzen, lan egin besterik ez dute nahi», azaldu du Adelinak. Mamadou eta Modu etxetik aldatu dira jada, baina maiz etortzen dira bisitan. «Beti beren etxea izango dela esan diet».

Orain Ousmani ematen dio aterpe. «Adelinak esan zidan etxean gera nintekeela eta eskola batean matrikulatu ninduela gaztelania ikasteko; benetan asko lagundu dit», dio irribarrez 32 urteko senegaldarrak. Mekanikari edo soldatzaile izateko ikasten ari da.

Kanaria uharteetan, aldiz, beste biztanle batzuek begi txarrez ikusten dituzte etorri berri horiek, eta migrazioaren aurka-ko elkarretaratze asko egin dira urte hasieratik.

Teodoro Bondyala
soziologoa eta
Kanarietako Afrikar
Elkarteen Federazioko
idazkaria, hildako haur
baten hilobiaren aurrean
Las Palmasen.
Matthew CAVANAUGH | EFE





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Beldurren fabrika

Foucaulten arabera, botereak, nolabait, talde bat osatzen duten subjektuen arteko harremanak ikuskatzen ditu; eta hori gauzatzeko, bezatze teknikak, menderatze prozedurak eta obediencia lortzeko sistemak erabiltzen ditu. Erabilitako estrategiak, halaber, zaintza,

saria eta zigorra dira, beste batzuen artean. Horren eredia ikastetxe batean ezarritako sistema dugu. Erakunde haue-
tan, haustura aukera ezabatzeaz gain, gizabanakoen jokabi-
dea zuzendu eta arautu daitekeen ingurunea osatzen dute,
eta, batez ere, zaintzapean eta kontrolpean edukitzeko au-
kera ematen dute.

Filosoforen ikerketek azaltzen dute boterea ez dela era-
biltzen pertsonak hertsadura fisikoaren bidez behartuz, bai-
zik eta nahi denaren arabera portaera bermatzen duten
mekanismoak ezarrituz, hau da, jokabide jakin batzuk bultza-
tu, desbideratu, erraztu, zabaldu edo mugatuz. Horrela,
gaur egun, boterea erabiltzen da kontrolatzeko zer “jakite mo-
du” edo arrazoibide diren onargarriak, egiazkotzat aurkez-
tuz; eta beste “jakite modu” batzuk, aldiz, baztertuz. Diskur-
tsoa etengabe indartzen da, boterearen tresna eta ondo-
ria baita aldi berean: pentsamenduak eta jokabideak
kontrolatzen ditu, eta ho-
riek, aldi berean, sinesmen
sistema egituratzen dute.
Gainera, egiazkoa eta fal-
tsua zer den zehaztean,
“egiaren erregimen” bat
sortzen du, ukaezintzat jo-
tzen diren ezagutza komu-
nen egitura bat.

Hortaz, boterearen orde-
zkariek beti jakin dute beldu-
rrean eraikitako diskurtsoak
besteen bizitza kontrolatze-
ko arma eraginkorra direla,
biztanleriak haiei komeni
zaien bezala pentsa, senti
eta joka dezan eragiteko. Na-
omi Klein kazetari eta filo-
sofoak “The Shock Doctrine”
liburuan aipatzen du: «Kri-
sialdian, biztanleria prest
dago sendabide magikoa
duela dioen edonori botere

izugarria emateko, krisia depresio ekonomiko handia izan
zein atentatu terrorista izan».

Funtsean, gobernuek gure barnean finkatu dutena bizitze-
ko beldurra da, eta, kontzienteki eta oharkabea, ematen diz-
kiguten aginduak betetzen ditugu. Artaldearekin bat egiten
saiazten gara. Are gehiago, modu otzanean egiten dugu erre-
beldia: futbol partida batean dena baimentzen diogu gure bu-
ruari zein besteei, baina adibidez, giza eskubideak mehatxa-
tuak ikusten ditugunean, borrokatzera joateko behar den
barne askatasuna falta zaigu. Asko gai gara gure eskubideei
uko egiteko, ordainean ustezko segurtasun handiagoko egoe-
ra bat saltzen badigute. Politikariek badakite hori, eta horre-
gatik, eskubideen eta askatasunen murrizketa ustezko meha-
txuren batekin justifikatzen dute.

**Botereak, behar duena lortzeko, jende larritua behar du, kezka jota dagoen norbait kaltebera delako, eta ahul-
tzat hartzen diren pertsonen pentsatu baino gehiago
sentitu egiten dutelako.** Eta pentsatu gabe sentitzen badu-
te, menderatzen dituen beldurrari eusten diote eta onartezi-

na errazago onartzen dute. Honen laguntzaile hedabi-
de handiak izaten dira, in-
darkeria eta ustelkeria erre-
alitatearen erdigune
bihurtzen espezializatu di-
ra falaziak erabiliz. Hau da,
biztanlerian segurtasun
sentsazioa aldatuko da, on-
dorio desberdinak ateratze-
ko joera informazioa esku-
ratzeko moduaren edo
aurkezteko moduaren ara-
bera aldatuko da.

Gaur egungo errepresio
teknikak gizarteak larritzea
bihurtu dira. Gure hausnar-
tzeko eta erreakzionatzeko
gaitasuna gainditzen duten
mehatxuak daudela barne-
ratu dugu. Horretarako, bel-
durren fabrika eraiki dute,
denoi gure bizitzaren gaine-
ko kontrola hartu ezin du-
gula sinetsarazteko. •



Michel Foucaultek botere harremanen konplexutasuna aztertu zuen.

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

«Enemigo público número uno porque no aguantas...»

Enemigo público número uno porque no aguantas que te joda ninguno», Cicatriz taldeko Natxok kantatu ohi zuen. 80ko hamarkadan, Europa industrializatuan, edonon kanta zezaketen halako zerbait, baina egia da Natxo Etxebarrietaren eta beste askoren bizia Euskal Herriari lotua zegoela. Hala agertu dute berriki RRV Euskal Rock Erradikala zena eta ETaren biktimei eragindako mina elkar lotzen saiatu den ETBko dokumental batean. Horretarako aditu eta historialari batzuk ere agertu dira, gauzarik xelebreenak esaten.

Bai, lotua zen Natxo Cicatriz euskal gatazka deritzagunari. Berak hala azaldu zuen emandako azken elkarriketan. Gerora indarrez itxitako “Egin” egunkarian izan zen, 1995ean. Fisikoki jota, handik gutxira hil zen. Bere senide bat aipatu nahi izan zuen bereziki: Txabi Etxebarrieta, Guardia Zibila tiroz hil zuen ETAko lehen militantea.

Etxebarrieta goraiatzaren duen eskultura bat badago Arantzazuko santutegiaren leku gorenean. Hala erabaki zuen Oteizak. Akaso, garaia da memoria hain modu partzialean berreskuratu nahi duten horientzat hori ere jopuntuan jartzeko, eta basilikaren fatxada nagusia goitik behera eraisteko, apostolu eta guzti. Horrela, bide batez, eraikuntza lanak hainbat urtez gelditu zituen eliza frankistaren nahiari omenaldia ere egingo genioke. Melitoni omenaldi berri bat, hala nahi bada.

Izan ere, hainbatek testuingururik gabeko kontakizuna gailentzea nahi dutela dirudi, urtetan testuingurua eskaintzeak (ETaren) indarkeria justifikatzen zuela errepikatu ostean. Testuinguru gabe eskaini daitekeen gauza bakarra, alabaina, ezjakintasuna da. Hala egin dute aipatu ETBko dokumental horri bide eman diotenei. 80ko hamarkadan gazteek ez zieten sinistu eta, martxa honetan, gaur egungoek ere ez diete sinistuko, horrenbesteko sinplekeria ez baita sinesgarria.

Fenomeno konplexua izan zen hamarkada hartan gazteen artean sortutakoa, non ideologia, mugimendu eta ekimen ezberdinak nahasten ziren, testuinguru jakin batean: ETaren ekintzak, ZEN Plana, atxilotetak, tortura, GAL, industria birmoldaketa eta krisi ekonomikoa, droga, intsumisia, NATO, diktadura eta inperialismoaren kontrako gerrilla Latinoamerikan...

Musika taldeek gai horietako asko jasotzen zituzten, eta, gehiegikeriak gehiegikeria, oro har letra oso aurrerakoiak zituzten; inperialismoaren, errepresioaren, kapitalismoaren esplotazioaren edo botere ilunen kontra; kritika zorrotza egiten zuten, zenbaitetan kontraesan ere beterikoa. Kontzertuetan batzuetan izan ohi zen basakeria ere ez zen oso ulergarria. Halere, esan behar da ondo antolatutako jaialdi erraldoietan

Musika taldeek boterearen kontra kantatzen zuten funtsean, langileek «obrero despedido, patrón colgado» oihukatzen zuten bezalaxe

hori ere baretu zela, eta ezker abertzaleak izan zuela horretan zeresan handia, «doako indarkeria» zeritzana galarazteko (barkatu, gaurko egunean «doako indarkeria» kontzeptua erabili ezin badaiteke, ez dezagun inor aztoratu indarkeriazko erantzunak sortzen dituzten egoerak egon daitezkeela iradokiz). Besterik islatu nahi bada ere, Jarraikoak ez ziren txupa beltzaz uniformatu eta edonoren hilketa aldarrikatzen hasi.

Musika taldeek, kasu batzuetan etsipenetik, miseria eta zapalkuntza zekartzan boterearen kontra kantatzen zuten funtsean, langileek kaleko manifestazioetan «obrero despedido, patrón colgado» oihukatzen zuten bezalaxe. Hori guztia susmopean jartzea eta horren kontra halako irakurketa inkisitoriala egitea atzerakoia da, erabat. •

SEXU ABUSUEN AURREKO BABESA

Barnahus ereduko etxeak, haurren lehen aterpea eta auzitegiko frogaren gordeleku

📁 JENDARTEA / Nerea Goti

Haurtzaroko sexu abusuen intzidentzia handiaren eta arazoari ematen zaion erantzun kolektiboaren panoramika oso bat eman du Save The Childrenek «Etxepe berean» txostenean, arreta sistema errotik aldatuko duen Barnahus ereduko proiektu pilotuaren harira. Gizartean dagoen ezjakintasunari eta pertzepzio okerreire begiratu die.

Noizean behin barruak astintzen dituen albiste solteetan izaten dugu arazoaren berri. Baina berriak agertu eta segituan desagertzen dira, konexiorik gabeko kasuak balira bezala, atzean duten errealitateari eta horren tratamenduari begiratu gabe. Arazoak izena du, haurtzaroan izaten diren sexu abusuak errealitate bat dira, eta adi-tuen arabera, isilean mantentzen den errealitate horrek pentsatu baino askoz intzidentzia handiagoa du gure gizarteetan. Hala ere, ezer gutxi dakigu prebentzioaz, detekzioaz, prozedurez, eta pairatu behar dituzten prozesu judizialez... Gordin bezain ezezaguna den arazoaren panoramika osoa Save The Childrenen txosten batek eskaini du berriki, «Barnahus» ereduan oinarrituta. Lakuak abian jarriko duen proiektu pilotuaren harira. Sexu indarkeriaren biktimak izan diren adin txikikoak artatzeko sistema eta espazio berriak dira Barnahus izenarekin ezagutzen diren zentro horiek.

Ereduaren ezarpena biktimak horien arretan mugarria izango dela nabarmendu da, baina askoz gehiago erakutsi du, azalera irteten diren kasuen trata-

menduan egungo sistemak dituen gabeziak erakutsi baititu, haur eta nerabe horien ongizatearen ikuspuntutik begiratu eta auzitegi-tako bidea bukaeraraino eramateko gakoak den beste elementu bat hobetzea dakarrelako: testigantzen balioa, eraginkortasun juridikoa bermatzeko.

Kasu gehienetan gakoak haurraren lekukotasunari ematen

Charo Arranz Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Save The Childreneko zuzendari nagusia Gasteizen, Barnahus ereduari buruzko jardunaldian.
Jaizki FONTANEDA | FOKU

zaion sinesgarritasunarekin lotuta dago. Prozesuan zein prozeduran egon daitezkeen forma akatsak, gainera, zigorrik gabe bukatzen duten kasu askoren atzean daude.

BIRBIKTIMIZAZIOA SAIHESTU

Islandian sortua, AEBetan eta Europako hainbat herrialdeetan –gertuen Katalunian, hainbat etxerekin– hedatuta dagoen eredu da. *Barnahus* hitzak «umeen etxea» esan nahi du islandieraz, eta, finean, biktimak den haurra eta haren familia erdigunean jartzen dituen arreta sistema integrala bermatzen du, egungo prozedurak eragiten duen birbiktimizazioa saihestuz.

Antolaketa berriarekin, ez da haurra sistemaren beharretara egokitu beharko dena, gaian formazio berezia duten profesionalak euren artean koordi-

natu eta etxe horretan bertan arituko baitira, haurrari entzun eta beharrezko babesa eta arreta emateko, baita berme guztiak izango dituen epaitegien aurreko prozedura abian jartzeko ere. Talde psiko-sozialak, osasun profesionalak, epaitegi-takoek, polizia edo gizarte zerbitzuek bertatik koordinatuta lan egingo dute jarraitu beharreko pauso guztietan.

Arestian esan bezala, eredu berria «mugarri» gisa aurkeztu da, baina benetan zer ekarriko duen ulertzeko, Barnahus ereduak gurera zer testuingurutan heldzen den eta zer aldatuko duen ikusi behar da, eta hori da, hain zuzen ere, Save The Childrenen «Etxepe berean» txostenak aletzen duena, arazoaren eta arreta sistemaren panoramika bat eskainiz.

Egungo agertokia deskribatzen duen lan horrek intzidentziari erreparatzen dio, arazoaren tamainaz ohartarazteko.

BOST UMETATIK BAT

Maneiatzen diren datuak ikusita, arazoaren intzidentzia kezkagarria da, are gehiago txostena irekitzen duen hausnarketa kontuan hartuta: «Haurrekiko sexu abusuak hitz egiten dugunean, prebentzioa ez den guztia berandu heldzea da». Nazioarteko prebalentzia zifrak oinarri hartuta, kalkulatu da EAEn bost umetatik batek sexu indarkeria jasan ahal izan duela, eta 18 urteko 2.000 eta 4.000 gazte artean izan daitezkeela bizi-tzan sexu-indarkeria mota bat jasan dutenak.

Ez dago, halere, datu zehatzak ezagutzeko modurik, nabarmentzen dutenez. Txostenean bildutako datuak 2018koak dira, eta horien ara-



bera, urte horretan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietako erregistroetan indarkeriarekin lotutako 90 jakinarazpen jaso ziren.

Urte horretan bertan Er-tzaintzak eta udaltzaingoez 16 urtetik beherakoen aurkako 276 sexu delitu bildu zituzten [Estatu espainoleko zigor kodeak 16 urtetan finkatzen du sexu adostasuna]. Hego Euskal Herriko hiru lurralde horietako epaitegietan 151 lagun izan ziren zigortuak urte horretan.

EAEn zenbat kasu gertatzen diren ez jakiteaz gain, «ez dakigu horietako zenbat antzematen diren, ezta zer ezaugarri dituzten ere. Ez dago erregistro bateraturik. Haur eta nerabe horiei arreta ematen dien zerbitzu bakoitzak bere erregistro propioa du. Guztia ez daude eskuragarri, eta ez dute informazio bera jasotzen», aipatzen da txostenean. Dauden datuek, beraz, «panoramika zatikatua, partziala eta nahasia ematen dute».

%80 INGURU HURBILEKOAK

Iñasi Arruabarrena Psikologian doktoreak zehaztu zuenez, haur eta nerabeek pairatzen duten sexu indarkeriak adierazpen ezberdinak ditu, eta azterlana harreman boterean oinarritutako sexu bortizkeria kasuetan zentratu da. Azaldu zuenez, ikerketek diote kasu gehienetan (%80 baino gehiago) abusuen egileak umearen ingurukoak direla, gizonezkoak gehienak, eta nagusiki neskak direla abusuak pairatzen dituztenak (%60 gutxi gorabehera). Prebalentzia, gainera, handiagoa da behar bereziak dituzten haur eta nerabeen artean. Beraien adinkideekin alderatuta, arriskua hiru eta bost bider artean handiagoa da.

Azken urteetan, erakundeek baliabide ezberdinak aktibatu dituzte, baina horien enfokea ez dela egokiena izan uste dute adituek. Haien iritziz, gauza asko hasi behar dira aldatzen, bai detekzio tresnak eta bai gizarte mailan dauden pertzepzioari zein kontzientziazioari dagozkien gaiak. Argi daukate, nolanahi ere, gaur egun haur edo nerabe batek jasan duenaz edo jasaten ari denaz norbaitekin hitz egiten duenean, oso konplexua den bide bat zabal-tzen dela, eta jakinarazten ez diren kasu askoren arrazoia horixe dela uste dute adituek.

Txostenaren arabera, icebergaren zati ezkutuan jarraitzen duten kasuen zergatietako batzuk gizartean dauden uste okerrekin eta ezagutza faltarekin lotuta daude.

«Profesionalek eta, oro har, herritarrek ez dakite susmoak jakinarazteko betebeharra dutela; eta ez dakite ez non eta ez nola egin». Askotan ez dakite jakinarazteak zer ondorio dituen ere, «eta horrek ere atzera eginaraz diezaike, maiz pentsatzen baita jakinarazten duena prozesu judizial edo judizialean parte hartzera behartuko dutela, edo gizartean egoera zailak bizi beharko dituela».

LEGEZ, JAKINARAZTERA BEHARTUTA

Kalean ez da ezaguna susmoak daudenean legeak dioela horien berri eman beharra dagoela. Txostenak dio horrekin batera profesionalen formazioan dauden gabeziak direla arazo larrienetako bat. Gaineratzen du Hezkuntza Sailak daukan protokoloa ezagutzen edo erabiltzen ez duten ikastetxeak eta profesionalak daudela, eta protokoloa irakasleei eta irakasle ez diren langileei zabaltzea proposatzen du.



Barnahus ereduak etxe bat, irudian. Adituek garrantzi handia ematen diote zentroak biktimarentzat eta familiarentzat proiektatu behar duen lasaitasunari eta babestua sentitzeko giroari.

Save The Children

Polizia etxeetatik eta ospitaleetatik urrun, irisgarritasuna da kontuan hartu behar den beste faktore bat, baita premia bereziak dituzten haurrei egokituta egotea ere

Prebentzioan, profesionalen formazioan eta kontzientziazioan sakontzeko beharra aipatzen dute adituek, «abusu kasu gehienak ezkutuan gelditzen» direlako

HAURRAREN SUSPERRALDIAN ZERIKUSI HANDIA DU SISTEMAREN ERANTZUNAK

Abusuek umeengan dituzten ondorioetan begirada jarrita, Iñasi Arruabarrena Psikologian doktoreak eta Save The Childrenen txostenaren egileetako batek nabarmendu zuen ikerketek argi erakusten dutela sexu abusuen ondorioz arrisku faktore handi bat dagoela osasun fisikoan eta mentalean arazo esanguratsuak garatzeko epe motz, ertain eta luzean. Hala ere, zehaztu zuen horrek ez duela esan nahi biktima izan diren haur eta nerabe guztiek esperientzia horrekin lotutako ondorioak pairatuko dituztela. Ikerketen arabera, badaude eragin potentzialki negatiboa moderatu dezaketen aldagaiak, eta horietako batzuk biktimizazio egoerarekin lotuta daude (abusuen maiztasuna, erasogilearen hurbiltasun maila, bortizkeriaren erabilera egon den...).

Azaldu zuenez, «oso garrantzitsua» den al-

dagai batek zerikusia du biktimak bere inguruetik jasotzen duen erantzunarekin. «Hor, paper handi bat jokatzeko dute haurrak gertu dituen pertsonen, familiak, baina baita esku hartzen duten zerbitzuek ere, eta hor gu sartzen gara», adierazi zuen.

«Etxepe berean» txostenean, adituek gogorarazten dutenez, «guraso ez-erasotzaileen ehuneko handi batek ondoez emozionalaren eta traumaren sintoma esanguratsuak gartzatzen dituzte», horrek adingabeak behar duen laguntza emateko dakartzan traba guztiekin. Era berean, ikerlan asko ez badago ere, ikusi da ondoan horrelako kasu bat bizi izateak eraginak izan ditzakeela anai-arrebengan. Ikerketa batzuen arabera, biktimen antzeko sintomatologia barneratzen eta kanporatzen dute, «depresioaren eta antsietate sintomak barne».

Jakinarazpen kopurua txikia izatearen arrazoen artean, salatzekeo betebeharrari buruzko ezagutza faltarekin batera, abusuak hautemateko adierazleak ez ezagutzea aipatzen dute adituek. Era berean, askotan norberak bere lanbidean duen erantzukizunaren barruan betetzen duen rola pertzepzio okerra dagoela zehazten dute, jakinarazteko ardua beste profesional batena dela uste baita askotan.

LAGUNTZEN EZ DUTEN PERTZEPZIOAK

Ohartarazpenik ezaren zergatien artean, bestalde, lanpostuan, haurraren edo familiaren izan daitezkeen eragin negatiboen edo gatazken beldurra ere egon daitezke. Familia barruan konpondu beharreko egoerak direla pentsa dezakete batzuek, sistema judiziala eraginkorra ez den pertzepzioa (hainbatetan abusua egin duenak zigorrik ez duelako), prozesu judizial batean sartzeak ekar ditzakeen ondorioen beldurra... eta beste askotan, pentsa daiteke horrelako egoerak familia barruan konpondu behar direla edo hobe dela adin txikiko hori beste era batera babestea.

Kontzientziazioa eta informazioa, beraz, hobetu beharreko atalak direla nabarmentzen dute, profesionalen formakuntzarekin batera.

Hurrengo urrats bati erreparatuta, ohartaraziak diren kasuetan, txostenak nabarmentzen du EAE 600 sarrera puntu baino gehiago daudela salaketa jaso eta hasierako arreta emateko, kontuan hartuta kasuak osasun zerbitzu ezberdinetatik, justizia administratibotik, gizarte zerbitzuetatik edo polizia etxe ezberdinetatik hel daitezkeela



sistemara, eta horrek eragile- en jarduera ezegokia eta deskoordinatua eragiten duela, haurrari kalte erantsia sortuz, gainera, bigarren biktimizazio horrek kalte psikologikoa areagotzen baitu.

Panorama horren aurrean, uda aldean Gasteizen abian izango den lehen Barnahus etxearen esperientzia pilotuak nabarmen aldatuko ditu hainbat gauza. Hasteko, sexu-indarkeria kasuentzako sarrera puntu bakarrak izango dira etxe horiek. Arabakoaren ostean, beste bina zabaldu nahi dituzte Lakuak Gipuzkoan eta Bizkaian.

Beatriz Artolazabal Lakuako Gobernu Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak grafikoki azaldu zuen espazio berriek ekarriko duten bide berria: irakasle baten kasu bat hautematen bada, zuzendaritzari jakinarazi eta honek «Barnahusera joko du eta familiari bertara joateko gomendatuko dio».

Etxe horretara helduko den umeak haurren biktimizazioan espezializatutako profesionalak izango ditu ondoan; familiak ere laguntza profe-

Irudian, biktimaren elkarrizketa jarraitzeko gela. Epailea, fiskala, abokatuak eta ikertuak izaten ari den pertsona ere hartzeko espazioa da, eta bertatik galderak helarazteko aukera dute. Save The Children

sionala jasoko du, eta kasuan parte hartzen duten estamentu guztietako profesionalak aktibatuko dira bertatik beharrezko arretaren atal guztiak jorratzeko, biktimaren miaketa medikotik hasita.

ELKARRIZKETA, FROGA FORENTSEA

Hala ere, funtsezkoa den elkarrizketa forentsea da ereduak eskaintzen duen tresna balioetsuenetakoa bat. Grabatua izaten da eta telebista zirkuitu itxi baten bidez esparru judizialeko ordezkari ezberdinek beste gela batetik zuzenean jarraitu dezakete.

Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan egindako azterketek ondorioztatu dute sistemak epaiketen eta zigo-

rren kopurua bikoiztu eta hirukoiztu egin direla.

AEBetan, Children`s Advocacy Center (CAC) zentroak dira 1980ko hamarkadatik mota honetako arreta ereduak aplikatzen dutenak. Hamarkada horren bukaeran, CAC zentroen arreta ereduak egokituta, Reykjaviken Barnahus izeneko zentroa zabaldu zen tresna berri bat abian jarritz: esparru judizialeko ordezkariak pantailatik jarraitu ahal duten elkarrizketa forentsea. «Horrek bermatzen zuen frogaren epaiketarako baliozkotza izatea eta aurrez erabakitako frogaren gisa konfigurazioa», nabarmentzen dute adituek.

Elkarrizketa sexu indarkeriaren biktimen ebaluazioan aditua den psikologo batek egiten du, «ebidentzia oinarritutako protokoloa eta jardunbideei jarraituz, frogaren kantitatea eta kalitatea bermatzeko».

Elkarrizketa horren grabaketari esker, biktimak ez du epaiketara joan beharrik. Testigantza beste gela batean ematen ari den bitartean, epailea, fiskala, defentsako eta akusazio-ko abokatuak –eta akusatuak berak, hala eskatuko balu– pantailan ikusi eta elkarrizketatzaileari galderak helarazteko aukera izango dute.

Sistemak biktimen detekzioa eta ebaluazioa hobetzen dituela baieztatu da, eta Europako Kontseiluak berak gomendatutako ereduak da. Abusuak pairatu dituzten haur eta nerabeen arretari dagokionez, beraz, askoz samurrago eta eraginkorragoa den bide berri bat zabaltzen da, baina ondoren prebentzioaren lanketa behar izango duena, Save The Childrenek dioenez, kasu hauetan prebentzioa ez den guztia berandu heltzea delako.

Arreta eredu berriak esku-hartze judiziala arindu eta atxilotzea eta epaiketa kopuruak handitzen dituela nabarmendu dute. Herrialde batzuetan, bikoiztu eta hirukoiztu egin dira

Susmoaren aurrean, esplorazio elkarrizketa bat egon daiteke salaketa jartzeko moduko elementu argi nahikorik ez dagoenean. Auzitegi elkarrizketa epaitegiak eskatzen du

BRAGI GUDBRANDSSON

NAZIO BATUETAKO KIDEA ETA BARNAHUS EREDUAREN SORTZAILEA

«Epaitegietan haurraren narratibak froga gisa balio izatea bermatu nahi badugu, adingabeari elkarrizketa asko ez egitea bermatu behar dugu»

Gudbrandsson Gasteizen izan da berriki Lakuak ezarri nahi duen proiektu pilotuaren aurkezpenean. GAUR8ri kontatu zionez, gizarte zerbitzuetako langilea izan zen Islandian, kontzientzia handirik ez zegoen garai batean. «Bertatik bertara ikus nezakeen sistema zein izugarria zen, eta ez ziren soilik errepikatzen ziren elkarrizketak, batzuetan ez zen adingabearekin hitz egin nahi ere izaten, ez baitzuten uste adingabea lekuko ona zenik», gogora ekarri zuen.

Gakoetako bat adingabearen testigantzari ematen zaion sinesgarritasunarekin lotuta dago. Nola jokatu beharko litzateke?

Lekukotzaren baliozkotasuna ebaluatzea zaila delako ustearen arrazoia ia beti adingabeari hainbat pertsonak hainbat elkarrizketa egin dizkiotelako da. Formaziorik gabeko pertsona askok galdetzen badiote, kontatzen dituen bertsioen artean aldeak egongo dira beti, haurraren narratibak desadostasunak izango ditu, eta horren arrazoia da batzuetan erantzuteko orduan erantzun zuzena zein den pentsatzen dutela. Batzuetan, gainera, uste dute galdetzen duen helduak entzun nahi duena erantzun behar dutela. Galderak egitean, adingabe bat elkarrizketatzeko behar den prestakuntza ez baduzu, gaizki interpreta daiteke edo gidatuegiak izan daitezke, eta galdera desitxuratu egin dezakete.

Prozedura judizialean haurraren narratibak froga gisa balio izatea bermatu nahi badugu, adingabeari, lehenik eta behin, elkarrizketa asko ez egitea bermatu behar dugu, eta elkarrizketa ugari horiek adingabearen narratiba kutsatzen ez dutela bermatu behar dugu, testuinguru judizialera iristean kasua suntsitzen dutelako.



Jaizki FONTANEDA | FOKU

Batzuetan, gauzak iradoki daitezke, adingabeak oso eraginberak dira, haurra engaina dezakezu, erantzuna iradokitzen diozu, eta narratiba suntsi dezakezu. Eta hori Europa osoan gertatzen da, haurrek euren narratiba kontatu behar diete haurtzaroa babesteko zerbitzuko arduradunei, poliziaren aurrean, ospitale batean, fiskalaren aurrean, terapeuta baten aurrean..., eta ez nau batere harritzen inork ez jakiteak benetan zer gertatu den. Hori oso kaltegarria da; oso esperientzia mingarria partekatzen ari da. Badago bigarren elementu bat, ingurunea. Komisaria batera eramaten badugu, biktima den pertsona baten erruduntasun sentimendua sendotzen ari gara. Adingabe gehienek badakite eta polizia etxera eramaten dituztela txarra den zerbait egin dutenak, eta noski, adingabe horietako askok sexu ekintza batean parte hartu dute, ez

dira horren arduradun izan, baina arduradun sentitzen dira. Horregatik, oso kaltegarria da biktima adingabea polizia etxe batera eramatea; instalazio adiskidetsu batean elkarrizketatu behar da, lasaitzeko diseinatutako leku batean, erlaxatuta egon dadin eta seguru senti dadin. Benetan mingarria izan den zerbait kontatu behar duen adingabe batek segurua den zentro bat behar du; ingurune adiskidetsu eta positiboan errazago egingo du.

Espazioa eta profesionalen formazioa beste gako nagusiak dira. Nola egiten dugun deskribatuko dizut. Guk [Barnahus eredu] elkarrizketa gela txiki bat daukagu: oso gela eroso da, oso atsegina, eta hor daude adingabea eta elkarrizketa egiten dion pertsona; ez dago beste inor. Prestakuntza espezializatua jaso duen

norbaitek egindako elkarrizketa da. Izkina batean kamera txiki bat dago, elkarrizketa egiten den bitartean grabatzen ari dena, eta jarraipen gela bat dago; beraz, kamera grabatzen ari dena pantaila batean ikusten da. Jarraipen gela horretan epailea dago, eta bera da gertatzen ari den guztiaren arduraduna; horrez gain, defentsaren abokatua, fiskaltzaren ordezkariak, polizia, haurrak babesteko zerbitzuen arduradun bat eta adingabearen abokatua edo legezko ordezkaria ere hor daude. Hori, normalean, elkarrizketa estandarizatu bat da. Elkarrizketa amaitu ondoren, epaileak aukera ematen du adingabeari gauza jakin batzuk galdetzeko, eta, lehentasunez, defentsak egin ditzake galderak; hau da, elkarrizketaren ondoren, bigarren fase batean galdeketa bat dago. Hori guztia bideoz grabatzen da; beraz, kasua epaiketa batera iristen bada, grabazio hori auzitegian aurkeztzen da, eta adingabeak ez du auzitegira joan behar. Horrela, birbiktimizazioa saihesten dugu, haurra auzitegian egindako galdeketagatik beldurtuta sentitzea saihesten dugu. Bada beste elementu gehigarri bat hemen: denbora faktorea. Elkarrizketa forentse hori egin dezakegu salaketa jarri eta adingabearen jatorrizko kontakizuna egin eta astebete, bi edo hiru astera. Ondoren, berehala, adingabea ebaluaziora eta terapiara pasatzen da, eta ez du gehiago sistema judizialean pentsatu behar.

Ikerketek erakutsi dute sistemaren gauzarik okerrenetako bat kasua auzitegietara iritsi arte izaten den itxaronaldi luzea dela. Bizitza geldiarazita izan balute bezala deskribatzen dute, eta benetan kontraesankorrak diren mezuak jasotzen dituzte. Esaten zaie beren bizitzarekin jarraitu behar dutela, baina abusuaren xehetasun guztiez gogoratu behar direla, gero ingurune judizial batean deskribatu eta berriro kontatu ahal izateko. Beraz, adingabeak prozesu hori guztia jasaten du hilabete batzuetan, urte batzuetan –teknikoki urtebete baino gehiago pasatzen delako salaketa jartzetik lehen instantzia amaitu arte, apelazio bat egon daiteke... sarritan bi, hiru edo lau urte pasatzen dira–. Barnahus ereduarekin hori ez da gertatzen.



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



MEDIKU HUMANOAGOAK

Pertsona bere osotasunean artatzeko liburu bat plazaratu du Maialen Berridik

OSASUNA / Maider Iantzi Goienetxe

Eri dagoen pertsona baten aitzinean jarriko den edozein osasun profesionalentzat lagungarri suerta daitekeen tresna bat da “Medikuaren oinarritzko gaitasun profesionalak” liburua (UEU). Maialen Berridi Agirre familia mediku donostiarrak idatzi du, Osasungintza Euskalduntzeko Erakundearen Agote sariari esker. Gipuzkoako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multi-profesionalean ari da Berridi 2017tik, eta komunikazio kliniko eta genero ikuspegia dira bere lan ildo garrantzitsuenak.

Solasaldi baten bidez aurkeztu zuen berriki liburua, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan, Donostian. Bertan kontatu zuenez, ikusten zituen hutsuneak bete nahian hasi zen idazten. «Euskaraz eskainitako osasun arloko irakaskuntzarako materiala ugaritzen ari bada ere, graduondoko formakuntzan eta egunerokotasunean medikuok dugun formakuntza jarraian gaztelania da nagusi», azaldu zuen. «Gero eta gehiago dira euskarazko liburu akademikoak eskatzen dituzten profesionalak». Gainera, mediku batek izan beharko lituzkeen gaitasun profesionalak hausnartu nahi zuen. Azpimarratu zuenez, gaitasunek harreman estua dute familia medikuen ezaugarriekin: arreta zuzena, pazientearekin erlazioa... Eta familia medikuntzak ekarpen handia egin dezake mundu akademikoan. «Ez dago arlorik, katedrarik honen inguruan unibertsitateetan, eta egon beharko litzateke».

Lan tresna bat eskaintzea izan da asmoa, egunerokotasunean barnera daitekeena eta

behin ikasita azkenean nahi gabe aterako dena. Bestalde, etorkizuneko medikuak nola izanen diren gogoeta zabaltzen saiatu da. «Orain arte medikuntzaren bilakaera garapen zientifiko-teknologikoarekin oso lotuta egon da, hori menderatzeari eman zaio garrantzia; alor humanistiko-so-

ziala, ordea, alboratua egon da. Leioako unibertsitatean bi ikasgai baino ez daude hauekin lotuta, eta egunero ari gara pertsonarekin lanean. Gizatasun hori berreskuratu behar da», egin zuen aldarri.


Kulturarekin lotutako aldaketa garrantzitsu bat gertatu dela nabarmendu zuen: oraingo

pertsona gaixoak ez dira lehenagoak, eta erantzun ezberdinak eskatzen dizkiete sendagileei. Ondorioz, horiek komunikazio klinikoan eta arlo bioetikoan gehiago garatzera behartuta ikusi dute euren burua.

«Norbanakoan jarri behar dugu arreta pertsonak artatzeko. Aldakortasuna bizitzaren legea da; bi aurpegi berdin ez dauden era berean, ez dira egongo ezohiko egoeren aurrean berdin jokatu duten bi pertsona», esplikatu zuen.

Gaitasun profesionala helburu bat lortzeko borondatez egindako ekintza kate bat da. Nahi izanez gero, behin eta berriro errepika daitekeena. Berridiren erranean, hiru alor landu behar dira hori lortzeko: «Ezagutza, abilezia eta baliokak».

Maialen Berridi Agirre familia medikua, «Medikuaren oinarritzko gaitasun profesionalak» bere liburua aurkezten. Gorka RUBIO | FOKU



Jesus Moran mediku-hezkuntzan adituak zazpi gaitasun aipatu zituen: profesionaltasuna, komunikazioa, pazientearen zainketak, eza-gutzak, osasun sisteman oinarritutako praktika, etengabeko ikasketa eta hobekuntza, eta informazioaren maneia.

GENEROA

Donostiako familia medikuak bertze gaitasun bat gehitu zuen: generoa. Izan ere, pertsonen eta populazioen bizitza hainbat faktorek baldintzatzen dute: ekonomikoak, sozialak, kulturalak... «Faktore horiek mugatzaile sozialak dira eta osasun sistemek baino eragin handiagoa dute osasunean. Azken urteetan, ongizatea hobetzeko helburuarekin, begirada mugatzaile sozialetara zuzentzen ari da, eraginkorragoa izango baita horiek aldatzea norbanakoen tratamendu edo aldaketak jorratzea baino».

Mugatzaile sozialen eragina agerian geratu da pandemian ere. «Generoa gizartearen erakuntza bat da, eta gaixotzeko ahalmena du, emakumeak egoera sozial, ekonomiko eta kultural kaskarreanean daudelako».

Osasun zientziaren garapean hutsune nabarmenak egon dira emakumeen osasun arretan. Erraterako, «ikerketak historikoki gizonekin egin dituzte eta zuzenean emakumeekin berdin joka zitekeela ondorioztatu da, beraien ezberdintasun biologiko bakarra ugal-aparatua zelakoan. Gaixotasun kardiobaskularrak gutxietsi dira eta gaixotasun mentalaren aitzakiarekin gehiegizko medikalizazioa bultzatu da».

Honekin batera, emakumeen ohiko patologiak ez dira ikertu eta gutxietsi egin dira;



Komunikazioa ez da berezko dohaina, ikasi egin daiteke. GETTY IMAGES

«Bi adituren arteko topaketa kliniko bat izan behar du», azaldu zuen Berridik. Sendagilea medikuntzan da aditua; artatua den pertsona, aldiz, bere bizitza eta ezaugarrietan

«Gaixo batzuk behin eta berriro datoz eta ez dugu lortzen sendatzea edo ondoezaren atzean zer dagoen jakitea. Metodo honekin zerbait eskainiko dugu hobetzeko»

anemia, tiroide gaixotasunak eta eritasun autoimmuneak kasu.

Azkenik, generoa patogeno gisa ulertzeko, emakumeen gainkarga aztertzea komeni da. «Barneratutako rol eta aginduen ondorioz, aurrera eramateko betebeharrekin gaixotzen dituzte eta baita rol horien kontra borrokatzeko grinak ere. Gainkarga, urduritasuna, mina eta nekea dira gaixotzera eramaten dituzten sintomen atzean dauden ondorez nagusiak».

METODO KLINIKOA

Boladan dago pertsona erdigu-nean jartzen dela erratea. «Baina aldaera oso desberdinak daude. Medikuntza pertsonalizatua sortu zen aurrena, genoma aztertzearekin eta onkologiarekin lotuta. Hori asko

garatu da. Honekin lotuta, talde edo gaixo zehatz batzuekin egiten den medikuntza sortu zen. Horrek zerikusi handiagoa du garapen molekularrarekin».

Azaldu dugun bezala, genetika ez da, ordea, gaixotzen gaituen bakarra. Michael Balint pazientearengan zentratutako metodo klinikoa garatzen hasi zen. Pertsona bere osotasunean aztertzen zuen, bere ideiak, sentimenduak eta testuingurua aintzat hartuz. «Paziente» hitza baztertzen ari dira orain, eta pertsona aztertzen da bizitza osoko eboluzioan ulertuz.

Etorkizuneko osasun profesionalarentzat alor humanistikoa eta filosofikoa garatzea ezinbestekoa izanen dela aldarrikatu zuen Berridik. «Oso garrantzitsua da gaixotasunaren atzean gauza gehiago badirela ikastea; hau da, desberdintasun

sozialek osasunarekin zerikusia dutela eta ditugun baliabideak ez direla soilik preskribatzen diren medikamentuak, baizik eta testuingurua, familia, osasun sarea eta osasunerako prebentzio eta promozio politika ere kontuan hartu behar direla».

OSASUNA SUSTATU

Eritasuna baino, pertsona bera artatzea da donostiarrak egiten duen proposamena. Alde bate-tik gaixotasuna lantzea; bertzetik, testuingurua eta sendagilearen eta pazientearen erabakien arteko adostasuna. Sintomez gain, modu orokor-rago batean behatuko du medikuak ondoeza, pertsonaren dimentsio guztiak ulertzen saiatuz. Gainera, ez du soilik gaixotasuna tratatuko, baizik eta osasungarriak izan daitezkeen joerak bultzatuko ditu.

Testuinguruari dagokionez, hurbilekoa garrantzitsua da (harremanak, familia, lagunak...), baita kanpokoa ere (mugatzaile sozialak). Horrekin, elkarrekin proiektu bat eraikitzen ahaleginduko dira sendagilea eta artatua den pertsona. Erabaki partekatu bat hartuko dute.

«Bi adituren arteko topaketa kliniko bat izan behar du»,

azaldu zuen liburuaren egileak. Sendagilea medikuntzan da aditua; artatua den pertsona, aldiz, bere bizitza eta ezaugarrietan. Topaketa honetan sei puntu zehaztu zituen: «Gaixotasuna eta gaixoaren ondoeza eta bizipena aztertzea; pertsona osotasunean ulertzea; akordio batera iristea; prebentzioa bultzatzea; sendagilearen eta pazientearen arteko harremana hobetzea; eta errealistak izatea medikuaren zein gaixo dagoen pertsonaren baliabideei dago-kienez».

NOLA EGIN HAU LAU MINUTUTAN?

Nola eramanen du sendagileak hau guztia praktikara paziente bakoitzeko hiru-lau minutu baditu? Jakina da Lehen Arreta bereziki gaindituta dagoela. «Denbora gutxirekin gabilta, baina ikerketetan ikusi denaren arabera, hasieran eskaintzen duzun denbora etorkizunean berreskuratuko duzu». Erantsi zuenez, dagoeneko lan hau egiten ari dira. «Gaixok sortzen du beharra, eta gu egokitu egin gara. Proposamen honek eraginkorrago izateko balio du. Gaixo batzuk behin eta berriro datoz eta ez dugu lortzen sendatzea edo ondoezaren atzean dagoena jakitea. Metodo honekin zerbait eskainiko dugu hobetzeko».

Argitu zuenez, ez da beti erabili behar, baizik eta behar hori sumatzen duten aldietan. Adibidez, sintoma korapilatsuak agertzen direnean.

KOMUNIKAZIO KLINIKOA

Sendagileen lanean komunikazioa etengabea den arren, orain arte berezko ezaugarri bat zela pentsatzen zen: pertsonaren izaeraren arabera hobeki edo okerrago komunikatuko du, jatorra izanen da edo ez. Baina,

FAMILIA MEDIKUEN EZAGUERAK

Medikuntzako gradu-
aurrean, familiako
medikuntzari buruzko
ikasgai bat izatea
etorkizuneko medikuak
egoki prestatzeko berme
bat litzatekeela uste du
Maialen Berridik.
Ohartarazi du familia
medikuak direla mediku
espezialisten artean
kolektibo handiena, eta
egoiliarren %30ek batez
beste familiako
medikuntza aukeratuko
dute. «Jaurlaritzak diru
gehien inbertitu beharko
duen espezialitatea bada
ere, Medikuntzako
Fakultatean ez du inolako
pisurik eta orain hasi dira
ikasgaiaren inguruan
lanean. Ondorioz,
espezialitatea aukeratuko
duten medikuek ia
ezezaguna zaien alorra
aukeratu beharko dute». Familia eta komunitateko
medikuntzaren
ezaugarriek sendagileak
behar dituen oinarritzko
gaitasunak eskuratzeko
eta garatzeko espezialitate
apropos gisa definitzen
dutela deritzo.
«Akademikoki, familiako
medikuek ekarpen
garrantzitsuak egiten
dituzte medikuntzako
fakultateetan,
graduondoko
formakuntzan eta
formakuntza jarraituan.
Familia medikuntzak
berezkoak dituen
ezaguera, trebetasun eta
jarrerak (abordatze
biologiko, psikologiko eta
soziala uztartzea kasu)
ezinbestekoak dira
edozein medikuren
prestakuntza osatzeko».



Medikuaren eta bere
pazientea den pertsonaren
arteko topaketa bi adituren
arteko elkarrizketa baten
gisa hartzea planteatzen du
Maialen Berridik. Bata
medikuntzan da aditua;
bertzea, bere bizitzan.
Irudian, sendagilea herritar
batekin hizketan, Getarian.
Andoni CANELLADA | FOKU

Maialen Berridik azpimarratu
zuenez, «eraginkorrak izatea»
bilatzen da, «ez jatortasuna».

Horretarako, elkarrizketa kli-
niko egituratu bat proposatzen
du, «lau fase logikorekin». «Au-
rrera gaixoarekin konektatuko
gara eta gure harremana eraiki-
tzen hasiko da; arakatze fasean
informazioa lortuko dugu;
ebazpen fasean arazoa maneia-
tuko dugu, guk hitz egin behar
dugun momentua izango da;
azkenik, itxiera fasea dator».

Hainbat teknika ikas daiteke
entzumen aktiboa lantzeko eta
informazio eraginkorra emate-
ko, baita enpatia eta asertibita-
tea hobetzeko ere. Teknikak
miaketa fisikoaren teknikak
irakasten diren zorrotasun
berberaz irakatsi behar direla
defendatu zuen Berridik. «Izan
ere, esperientzia hutsak, kasu
hauetan, bide okerretik eraman
gaitzake. Konpetentziak esku-
ratzea progresiboki gauzatu be-
harreko zeregina da, osasun
formakuntza osoan, baina ezin-
bestekoa izango da gaitasun
profesional horiek ondo defini-
tuta egotea eta, horien guztien
artean, edozein osasun langile-
rentzat oinarritzkoenak direnak
zehaztea».

Agertu zuenez, sarri, esparru
desberdinetan aipatu izan da
mediku on bat izateko onena
asko jakitea, eguneratua ego-
tea eta puntako berrikuntze-
tan jantzia egotea dela. Ikasle-
ek zein profesionalak ez diote
garrantzirik ematen alor hu-
manistikoa edo filosofikoa
lantzeari. «Horrek medikua
gaixoarengandik urruntzea
eragiten du, gizatasuna gal-
tzea, alegia».

BIOETIKA

Pertsona bakoitzaren sines-
men eta balioen arteko talka
aztertzen duen zientzia da bio-
etika. «Hutsune handiena na-

baritu dudan alorra da, bai
graduon bai graduondoko
ikasketetan», aitortu zuen fa-
milia medikuak. Bioetikarekin
lotutako arazoak mahai gaine-
an daude, ordea, eutanasiaren
lege berriarekin lotuta, adibi-
dez. Printzipio etikoak landu
ditu, zuhurtzia, eta deliberazio
etikoa. Azaldu zuenez, printzi-
pio etikoak aspaldikoak dira;
lagungarriak dira arazoak kon-
pontzeko, baina mugatuta
daude.

Balioen talka aztertzeko sei
puntu planteatzen ditu libu-
ruan: gertaera aztertzea; arazo
etikoaren zehaztapen berria
egitea; talka egiten duten ba-

**«Gaitasun hauek garatzeko ezaugarri
aproposena familia medikuak du, harremana
luzarokoa delako, baina badira teknikak
aldaketak daudenean ere balio dezaketenak»**

**«Komunikazio kliniko telefonikoan adituak
bihurtu gara. 10 minutuan informazio pila
lortzen dugu. Baina gaixoa telefonora ohitzea
zailagoa izaten da», onartu zuen profesionalak**

lioak identifikatzea; betebeha-
rrei buruz eztabaidatzea; ba-
litzotasunaren proba (eraba-
kia legearen barruan dago?
Publiko egiteko gai izango gi-
nateke?) eta denborazkotasu-
naren proba egitea (hemendik
urte batera erabaki bera hartu-
ko genuke?); eta amaierako
erabakia ixtea.

NEGOZIATZEKO AUKERA

Gaixoak zer egingo du orduan,
berak nahi duena? Hori izan
daiteke mediku batzuen kez-
ka. «Autonomiaren printzipio-
ak mugak dauzka. Zeharkako
harremana bilatzen dugunean
ez diogu gure lana egiteari
utzi behar; klinikoak izaten ja-
rraitu behar dugu, gure helbu-
ruak argi izanik. Kontua nego-
ziatzeko aukera ematea da.
Orain arte ez genuen egiten.
Orain zure lehentasunen eta
nireen artean zer jarriko du-
gun lehenbizi eta zer bigarren
adosten dugu».

Donostiako sendagilearen
arabera, horrela pazientea gus-
turago egonen da. Ahaldundu
eta bere osasunaz jabetuko da.



Itziar Elizondo
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Errituak

Gabonak ate joka ditugu oraintxe bertan, eta urtero bezala hasiko dira familiak zoratzzen. Bar-katu, hobeto esanda, familietako batzuk, ia gehienetan emakumeak. Familia idatzi dut, are familia *de facto* egituratik aldentuta gaudenok (seme-alabarik gabekook, kasu), festa egoera horrek behartzen gaituelako mozko-rraldi horretan murgiltzera, kasik ihesbiderik gabe.

Eta sistemak, balizko jaiak eta familia sentimenduak aprobetxatuz, kontsumoa baliatzen du erritualaren sendotasuna neurtzeko. Opari oparo, kontrolik gabeko zurrut eta jakiak, neurrigabekeria denok kontent. Horrela sistema bera errotzen da, baina tira, ez da unerik egokiena serio jartzeko. Gero gerokoak poltsikoan eta kontraesanetan.

Begi kolpe batean zifrek diote gizartea laikotu dela, baina Gaboneta-

ko koktel kristau-kontsumista hori, guztion konplizitatearekin, garaiezi-na da, antza. Horretan asko laguntzen du ere kaleetan prestatzen den giroak. Milaka argitxok begirada eta nahia mozkortzen digute, erosteko grina menderatu ez dezagun. Esanak esan, gehienek ez dute koktelaren kristau osagairik dastatzen, kontsumoaren geruza erabat gailendu baita Gabonetako denboraldian.

Eliza katolikoak, aldiz, bere monopolioa mantentzen du bizitzaren agurrean. Zenbatetan joan gara lagun edo ezagun bati azken agurra ematera elizkizun formatuan, hura fededuna ez zela jakinda edo, izatekotan, kritikoa zela Elizarekiko. Estatuan hiletan %82 konfesionalak dira oraindik, nahiz eta bizitzaren beste zeremonietan garrantzia galdu duen, ezkontzetan bereziki. Baliteke gure txikitasunetik heriotzari aurre egitean, ezezagunak dakarren bertigo

erraldoi hori sentitu eta erlijiotasuna berpiztea. Usadioen indarra edo familiaren eragina ere erabakigarriak izan ohi dira. Familia, berriro, aitzaki-maitzaki. Gainera, Eliza katolikoak, hiletak masiboki egitearen poderioz, azken agurra erabat despertsonalizatu du, kasik spam-errituala bihurtuz. Ez dago hileta bat baino gauza triste-agorik, non jainkoa eta sumisioa protagonista diren, hildako pertsona baino gehiago.

Agurrek, eta baita ongietorriek ere, arnagune berriak behar dituzte. Gero eta jaiotza gutxiago diren garai honetan, udalek gehiago bultza zezaketen bataio zibila deritzan zeremonia. Abian jarri dituzte udal batzuek, baina eskasak dira oraindik, Elizakoak erabat gutxitu diren arren.

Erritual laikoak indartu beharko genituzke. Pertsonen eta komunitatearen arteko loturak norbanakoen bizipenetatik antolatzen diren esanahiz beteriko zeremonia goxoak. •



Gabonen bueltako koktel kristau-kontsumistaren inguruan gogoeta egin beharko genuke.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

A zer jendilaje mota!

U da honetan hartu dut tarte bat pilatuta neuzkan liburuetako batzuk irakurtzeko eta plazera izan da, zalantzarik gabe. Plazera bai, baina egon da tartean ezuste desatsegin bat ere. Egia da erosi nuen susmo arraroa hartu niola izenburuari: “Los 40 radicales”. Baina izenburuordeak, «*La música contestataria vasca y otras escenas musicales*»-ek nire jakin-mina areagotu zuen eta eskuratu egin nuen.

Bada, liburua irakurtzen hasi bezain pronto berehala ohartu nintzen idazteko eta jasotako plazaratzeko mimo eskasa erakusten zuela. Izan ere, han eta hemen argitaratutako adierazpen ugari jaso ditu, baina horiek kakotx artean jarri arren, ez ditu argitasunez bereizi aipamen horien egileak ezta berorrenak ere –bidezkoena da eta irakurlearentzat gutxienekoa–. Erdipurdikoa, hortaz.

Lehen kapitulu luzeetan fokua non jarri nahi duen oso argi dauka: 80ko hamarkadan Euskal Herrian zeuden musika taldeetan, alajaina. Eta badu obsesio berezi bat garaiko talde haiek ETA goraipatu eta ETaren biktimak gutxies-ten zituztela behin eta berriro esateko. Gainera, sasoi hartan kazetari-kronikari zirenak eta RRV etiketa asmatu zein sustatu zutenak ere obsesio horren fokupan jartzen ditu baita ere, modu eskasean.

Gero, liburuan aurrera eginez, hainbat musika taldek jasandako zentsura kasu ezagunak errepasatzen ditu.

Irakurritakoa irakurrita nahiko nabarmen gelditzen da egileak ez duela –seguruenik adinagatik– Euskal Herriko musika eszena hurbiletik ezagutu. Eta zoritxarrez ez duela, beste kazetari batzuek egin izan duten kontrara, musika talde haien testuingurua ezagutzeko eta ulertzeko, zein ondorioz irakurleari azaltzeko, ahaleginik egin. Horren harira azpimarratu nahiko nuke azken urteotan kaleratu direla beste liburu batzuk non, nahiz eta egileek ikertutako musika talde zein eszena konkretuak ez zituzten bere horre-

tan ez ezagutu ez bizi izan, benetan egin duten ahalegina izan zena ezagutzeko. Adibide argiena, izenburutik hasita beste horrekiko antipodatan dagoen “Zona Especial Noise” maisulana. Kasu honetan, baina, ez da horrela izan.

Liburu honek helburu bakarra duela dirudi: 80ko hamarkadan eta gerora Euskal Herrian izan ziren eta diren ehunka talderen izena kakaztea horien abestien hitzak ETaren aldekoak zirela errepikatuta, baina argudiatu gabe. Eta horri esker, nolabaiteko ‘reditok’ jasotzea?

Ahaztuta neukan kontua, baina, hara!, egunotan ikusi dut ETB “Memoria eraikiz” izenpean emititzen dabilen dokumental sortatik 80ko hamarkadako Euskal Herriko musikan kokatzen dena. Eta argi eta garbi ikusi dut kontakizunaren ardatza aipatutako liburua dela. Hortaz, sinistu behar dut euskal gizartea eta batez ere gazteria hain gogor erreprimitu dituzten polizien kontrako kantuak idatzi eta kantu horiek publikoan ere abesten genituenak, Euskal Herrikoak zein

Egunotan ikusi dut ETBn «Memoria eraikiz» dokumental sortatik 80ko hamarkadako Euskal Herriko musikari buruzkoa. Kontakizunaren ardatza «Los 40 radicales» liburua dela garbi ikusi dut

beste herrialde askotakoak, ETA babestu izan dugula? Ze adarjotze da hau? Elkarbizitza, bakea eta konponketaren aldeko pausoak dira orain, XXI. mendean, halako irakurketa eta pisuzko argudiorik gabeko salaketak egitea? Ba justu ETBko erreportaje horretan ageri den ETaren biktima bakarrak argi eta garbi azaltzen du bera ez dela zentsuratuak izan diren taldeen hitzekin irainduta sentitzen, eta talde horien kantuak gustuko dituela. Orduan, zertan ari gara? Zer atzera-pauso dira hauek? Eta zer helburu dute atzean? Pate-tikoa iruditutako gutxi batzuen interesen mesedetan halako mamuak asmatu eta giro txarra sortu nahi izatea. •

«Nire lanak egiteko ero puntu bat behar da, ez dut kompetentziarik eduki»

Duela 35 urte luze hasi zen Andoni Canela (Tutera, 1969) Ebro ibaiko bazterrak kuxkuxeatzen, Tutera jaioterrian. Kazetari eta argazkilaria, ofizioz eta afizioz, naturarekin jolasean aritu zalea da. Sona handia lortu du bere erreportajeekin eta dokumentalekin, azkena orain zinema aretoetan dagoen “Panteras” pelikula. Natura argazkilari baten hiru hamarkadetako bi- zipenak, une gozoak eta gogor- rak izan ditu hizpide solasaldi honetan.

«Panteras» dokumentalak harrera bikaina izan du. Kontent?

Bai, noski. Arrakasta itzela izan du. Fikziozkoak ez diren pelikulen artean bigarren ikusiena izan da Katalunian, eta bost aste egon zen karteldegian han. Denbora asko da hori. Euskal Herriko hainbat zinema aretotan dago ikusgai, eta eskoletan ere eskaintzen ari gara. Jaso dugun *feed back*-a oso ona izan da, jendeari ez zaio astuna egin, gozatu dutela esaten digute. Ni neu eta Unai semea bertaratzen direnen zalantzak argitzen saiatzen gara emanaldiaren ondoren, eta horrek ere gure eta ikusleen arteko harremana sendotu du.

Zer ikusiko du dokumentalean ikusleak?

Planetan dauden zortzi felidoak filmatu nahi genituen, eta lortu dugu. Bost panterak dira: jaguarra, Amerikan; Afrikan, lehoia eta lehoinabarra; Asian, tigrea eta Asian bertan, baina Tibet aldean, elurretako pante-

ra. Beste hirurak, hauexek: puma eta gepardoa, eta azkena, iberiar katamotza. 7 + 1 formula, guztira zortzi. Horiek filmatzeko prozesua erakusten saiatu gara. Filmatzen zailena elurretako pantera izan da, oso zaila baita ikusten. Lortu genuen, baina teleobjektibo baten bitartez, bi kilometroko distantziara geundela. Iberiar katamotza ere ez zen erraza izan, oso ale gutxi daudelako. Izan garen leku guztiak leku ezagunak izan dira niretzat, egona nintzen lehenago beste erreportaje batzuk egiten.

Ordu eta erdiko dokumentala da, zenbat denbora behar izan duzue lana osatzeko?

Lau urte eta erdi izan dira hara eta hona, hiruzpalau bidaia urtero, hiruzpalau astekoak. Lau bat hilabete, urteko, gutxi gorabehera. Gero postprodukzio prozesu guztia, edizioa, musika... Urtebete pasa eman genuen jo eta su, baina gozamina izan da dokumentalak zer itxura hartzen zuen ikustea. Bitarteko guztiak izan ditugu, oso polita izan da. Asko bete nau dokumentalak berak, eta dokumentala osatzeko bizi izan dugun guztiak.

Beldurrik sentitu al duzu noizbait?

Piztiengatik ez. Piztiak halako mezuak bidaltzen dizkizu, bere jarrera jakiteko. Lehoiak edo tigreak arazo bat izan daitezke guretzat, une desegokian toki okerrean bazaude, baina beste piztiekin ez du zertan arazorik egon, gizakia usaintzen dutenean ihes egiten dutelako. Lehoiak uxatzeko sua egiten da, adibidez, eta kanpin denda bat ikusten badu, ez da barruan sartuko, berak tela hori tranpa

bat dela pentsatuko duelako. Gu, normalean, jenderik ez dagoen tokian ibiltzen gara, ez da safari bat. Piztiekin auto pila bat ikusten badute, ez dira hurbiltzen, normalean. Auto bat ikusten badute, bi pertsonarekin, ez dute euren jarrera aldatzen. Hiltzeko arriskuan egon naiz, bai, baina mendian irristatu egin naizelako, edo euliekin, tropikoetan, ez piztien mehatxuarengatik. Zaila da piztiekin gizakia bazka moduan ikustea. Noski, kumeekin badaude, eta zu 10 metrora, ba zure bila etorriko dira. Baina ez dugu hori egiten.

Une kritikorik bizi izan duzu bidaietan?

Bai, noski. Egun asko irudi ziztrin bat grabatu gabe, orduak eta orduak zain, baldintza askarretan, hotzagatik, euriagatik edo janariagatik... Une batean onartu egiten duzu egun horretan ez duzula ezer ikusiko, eta kito esaten duzu, ernegatzea okerragoa baita.

Eta piztiaren bat agertzen bada, zer? Zer sentitzen duzu?

Ba halako lasaitze edo poz hasperen bat egiten duzu. Piztia ikusten duzun lehen aldia bada, sentsazioa oso polita da. Dokumentua daukazula daki- zu, oso une polita. Argazki onak, grabazio ona egiten saiatzen zara.

Dokumentalak osatzeko gidoiak egin zalea zara, edo inprobisazioa da nagusi?

Zaila da grabatu nahi duzuna grabatuko duzun edo ez jakin gabe gidoirik egitea. Buruan ideia asko dituzu, baina unea iristen denean, eta zortekoa bazara, ikusten duzuna grabatzen saiatzen zara, eta gero ge-

ANDONI CANELA

ARGAZKILARIA ETA KAZETARIA

Natura argazkilaria eta kazetaria da tuterarra. Denboran eta tokietan luzatzen diren proiektuen zalea, natura behatzeko patxada eta pazientzia behar direlako. Bere azken lana «Panteras» izenekoa da. Unai semearekin batera aritu da planetan dauden zortzi felidoak filmatzen.



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

«Ederki bizi naiz
gustukoa dudana
egiten lortzen
dudalako jornala,
baina ez dirua
barra-barra
daukadalako. Nire
finantza egoera
gorabeheratsua
izan da natura
argazkigintzan
murgildu
naizenetik»



rokoak. Unai semearen parte-hartzea funtsezkoa da dokumentalean (Unai Canela, Banyoles, Katalunia, 17 urte). Haurra denetik gabiltza hara eta hona, argazkiak egiten, grabatzen, eta protagonista nagusia bera da. Berak egiten du lokuzioa, abesti asko bereak dira... Bera da dokumentalaren harria, eta ni grabatzera edo argazkiak ateratzera mugatzen naiz. Paisaia, panterak eta Unai dira ardatzak.

Wanda ekoizpen etxea eta Espainiako TVE telebistaren babesa izan duzue, besteak beste, dokumentala egiterakoan. Horrek lana txukun egiten duzuela esan nahi du, ezta?

Baiezkoan nago. Babes horrek halako lasaitasun ekonomikoa suposatzen du nire familiarentzat, urte pare batez edo, baina ez pentsa beti hala izan denik. “El viatge de l’Unai” (Unai Ca-

nela, Andoniren semearen bi-daia, 2016) ekoizteko urte eta erdi eman genuen bidaiatzen hara eta hona familia osoak: Neu, Meritxell bikotea, eta Unai eta Amaia seme-alabak. Horrek dirua balio du, familia bat egunero etxean zaudenean mantentzea bezala. Pelikula egin genuen, TV3 Kataluniako telebistak erosi zuen, oihartzuna eman zigun, eta ondoren Espainiako Mediaset eta Cuatro etxeek “Espiritu Salvaje” seriea erosi ziguten. Halako loraldi ekonomikoan murgildu ginen, baina irabazitako sosak berriro “Panteras” dokumentala ekoizteko erabili genituen. Brasilen egon gara, Botswanan, Tibetean, Patagonian... Horrek gastu handia suposatzen du.

Orain olatuaren aparrean zaude, askok pentsatuko dute: «Ederki bizi da Andoni, sosak irabazi eta irabazi!».

Ederki bizi naiz gustukoa dudana egiten lortzen dudalako jornala, baina ez dirua barra-barra daukadalako. Nire finantza egoera gorabeheratsua izan da natura argazkigintzan murgildu naizenetik. Une onak izan ditut, eta ez hain onak, egin ditudan lan askotan hilabeteak eman behar izan ditudalako sosik jaso gabe. Inbertsio moduan ikusten ditut epe horiek. Agian lan on bat egin, liburu bat, edo erreportaje sorta bat osatu, sosak kobratu, eta sos horiek gero beste proiektu bat abiatzeko erabili. Egonkortasun handirik ez dut izan, diru sarrera finko bat hilerero. Irautetik asko izan du nire lanak.

«El viatge de l’Unai» pelikulan familia osoarekin ibili zinen hara eta hona denbora luzez. Orain, «Panteras» dokumentalean, Unai semeare-

kin bakarrik. Erraza izan al da? Tentsio uneak sortu al dira egunerokoan?

Bueno, 13-15 urte bete arte ez zuen zertan arazorik egon Unairekin, baina hortik aurrera erraza ez: hiru aste segidan arroza jaten, itxaronaldi luzeak, Internet gabe... Nekosoa egingo zitzaiola uste nuen, nirekin bidaiatzeari uko egingo ziola denborak aurrera egin ahala, baina lau urteak iraun ditu nirekin. Gainera, antzera segitzen du orain, natura eta piztien maitale petoa da, mendian galtzeko grina dauka... “Entre Montañas” dokumentala egin du, berak bere kabuz, eta harro sentitzen naiz. Antropologia ikasten hasi nahi du, baina etxetik, bere bidaiak egiteko aukera edukitzeko.

«Panteras» filma baino lehen gauza asko egin dituzu. 35 urte daramatzazu ofizioan.

Bai. Asko dira. Dozena bat liburu argitaratu ditut, eta bi pelikula edo dokumental ekoiztu: Orain “Panteras”, eta aurrez “El Viatge de l’Unai”. Artikuluak ere ehunka argitaratu ditut. “National Geographic”-en, adibidez, lehen orriko erreportajeak lauzpabost esango nuke, eta beste 20 bat erreportaje edo bai. Nazioartean halako sona ematen dizu horrek, BBC Inglaterrako komunikabidean ere argitaratu direlako nire lanak.

17 urte zenituenean, Tuteran, aitaren baratzean klik eta klik ari zinela, egin duzun guztia egingo zenuela esan izan balizute...


Ebro ibaiertzeko baratz haietan jolasean nenbilela uste nuen. Gero Bardeara ihesalditxoak egiten hasi nintzen, Erronkari eta Irati aldera. Han gau batzuetan mendian lo egin nuen, eta hortik etorri

zen beste guztia. Bartzelonan Kazetaritza ikasi nuen gero. Hango Unibertsitate Autonomoko liburu denda batean klase askori uko eginez lanean hasi nintzen, dirutxo bat irabaziz. Udan, aurrezki horiekin Afrikara bidaiak egin nituen. Bost urtez hiru bat hilabetez egiten nuen hanka Afrikara: Madagaskar, Sao Tome eta Principe, Kamerun, Nigeria, Malawi, Namibia, Botswana... 18-21 urte nituela, bertakoen etxean edo kanpin dendetan lo egiten. Hori baino lehen Jamaikan hilabetea pasatua nintzen, isolatuta, «Gilbert» urakanaren ondorioz.

Natura argazkilaritza prentsakoarekin partekatu duzu urte askotan.

Beharko, irauteko. Komunikabide askotan aritua naiz. Kontzertuetako argazkilari izan nintzen hiru urtez “Rockdelux”, “Popular 1” eta “Full Metal” aldizkarietan. “Euskaldunon Egunkaria”-n argazkiren bat egin nuen, eta argazkilari-kazetari jardunean “La Vanguardia” kazetan hasi nintzen, Bartzelonan. Suteetako argazkiak ateratzen, 1992an. Natura nire pasioa zen, eta sosak ateratzen nituen, baina ez bizi-rauteko lain. Natura argazkigintza prentsako argazkilari lanarekin tartekatzen nuen. 1993-94an “GEO” aldizkarian argitaratu nituen argazki batzuk, geroago “National Geographic”-en, “El Mundo” kazetan, “La Vanguardia”-n erreportaje batzuk Erronkariako Abelbideaz... Hor jarriko nuke langa, naturako argazkigintza nire bizibide bilakatu nuen garaia. Orduz geroztik mende laurden pasatu da.

Ez zarete asko izango hori lortu duzuenak.



10-15 urte atzera, gurean natura eta bidaiak ardatz zituzten dozena bat argitalpen zeuden. Ondo ordaintzen zuten, eta natura argazkilarion lana baloratzen zuten. Espainiako egunkari handi guztiek zuten igandeko agerkarietan natura edo bidaiari buruzko sekzio garrantzitsua. Aro horretan ar-

gazkilari izan nintzen erabat, argazkiekin bakarrik jorrala ateratzen nuelako. Egund, edo urte batzuetatik hona, igandeko agerkarietatik desagertu egin dira natura eta bidaiari erreportajeak, eta agentziek landutako publlirreportajeak bakarrik jorratzen dituzte, musu truk emandakoak. Na-

tura argazkilarioi ere lanak proposatzen dizkigute, baina musu truk. Sare sozialak indartzearen poderioz, argazkilari on askok euskarri horietan argitaratzen dituzte argazki horiek, oihartzuna bilatze aldera. Natura argazkilaritza zaletasun edo hobby gisa zeukaten argazkilari askok

sekulako maila lortu dute, askotan argazkilari profesionalak direnak baino hobeagoa. Euren lana, baina, sare sozialetan geratzen da. Hau guztia diot norbera nahi duena egiteko libre dela nabarmenduz. Neuk, zorionez, egoera zer bide hartzen ari zen sumatu nuen, eta espezializatzen hasi nintzen.



Nola?

Hartz arreen inguruko lanak egiten, adibidez. Horrek suposatzen du zure lanak emaitza izateko akaso bi edo hiru urte behar dituzula, Kantauriar mendikatera hurbildu nintzenean 90 hartz bakarrik zeudelako. Eta arrakastarik izateko bermerik gabe. Liburua osatu nuen Hartz Arrearen Fundazioarekin elkarlanean, eta arrakasta izan zuen. Gero katamotz iberiarraren bila aritu nintzen. Inork egiten ez zuen lana. Antzera eguzki-arrano iberiarrarekin, eta tartean, nola ez, nire basapiztia gustukoenarekin, otsoarekin. “Durmiendo con lobos” liburua argitaratu nuen. Lan konplexuak denak, denbora eskatzen dutenak, eta jakina, halako koltxoi ekonomiko bat behar dutenak. Nik, zorionez, baneukan, eta akaso, lankide askok ez. Bide zailetik joan izan naiz beti, epe luzeko lanak egiten, eta kompetentziarik gabe. Izan ere, inork ez du nik egindakoa egiten, nire lanak egiteko erotu samar egon behar duzulako.

Argazkilaria eta kazetaria zara. Bata ala bestea gehiago?

Kazetari jarduna nabarmendu nahi nuke, liburuak edo erreportaje txukunak osatzeko argazkilari soil izanda nekez lortzen delako oihartzuna. Argazki onak behar di-

«Egungo irakurleak sakelako pantailari eragiten dio gorantz eta beherantz, eta ez du argazkirik begiratzen. Sarean artelan itzelak ikusten dira, baina ez ditugu baloratzen»



ra, noski, baina idazkera txukuna ere bai. Horretan trebatu naiz batez ere. Sarri, natura edo bidaia argazkilaritza postal edo argazki soiletan gertzen da. Hori egiten dutenak gutxiesteko batere intentziorik gabe plazaratzen dut iritzi hori. Nik istorio bat daukat, istorio berezi bat, eta argaz-

kiez gain, istorio hori hitz egokiekin jostea ezinbestekoa da. Zuk argazki on bat egin, baina testuinguru egokian jartzen ez baduzu, jai duzu. Zer naizen, edo zer nahiago dudan galdetzen badidazu, erantzuna argia da. Argazkilaria naiz, kazetaria baino gehiago. Kazetari jardunean

plano samarra naizela esango nuke, kosta egiten zait distira lortzea. Argazkiekin, aldiz, hobeto moldatzen naiz.

Irakurleak zeri erreparatzen dio gehiago? Argazkiari edo testuari?

Egungo irakurleak sakelako pantailari eragiten dio gorantz

eta beherantz, eta ez du argazkirik begiratzen. Sarean artelan itzelak ikusten dira, baina ez ditugu baloratzen, milaka argazki jaso baititzakegu oso tarte txikian.

Hiru toki gustukoenak aukeratzeko eskatuko banizu, zaila, ezta?

Konpromisoa. Madagaskar, Nepal... 30 toki esan nitzake.

Zer egingo duzu etorkizun gertuan?

Antzera jarraitu... Otsoekin zerbait berezia egin nahi nuke, Mongoliara joan ere bai. Han elurretako panterak omen daude.



GAUR8 ireki gure leihoa

Egunero zerbait egingo bagenu

Miren Azkarate
Badiola

Inpresioa dut egunero dela “zerbaiten eguna” egutegian, betiere santuen errespetuarekin, amen. Badira batzuk, honengatik edo harengatik, entzute-tsuagoak edo gertukoagoak ditugunak, bakoitzak bereak. Ondo deritzot egun seinالات hauek existitzeari, baina zer nahi duzue esatea, egun bakarrarekin eta gainontzeko 364tan ezer ez egitearekin, gauza gutxi lortuko ditugun susmoa dut.

Horrela, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Egunean, bere senar ohiaren eskutik biolentzia hau pairatu zuen emakumeak, haren alabak eta bi bilobek ez lukete etxegabetze bat

bizi beharko. Edo abenduaren 1ean, Hiesaren aurkako Egunean, urte asko dituen eta zeharo ahaztuta dugun beste pandemia honi ikerketarako baliabide gehiago eskainiko balitzaizkio, behingoz sendatzeko aukera izango lukete eritasun hau dutenek. Eta zer esan abenduaren 3ari buruz! Euskararen Eguna. Gure agintari guztiak poz-pozik abesten eta gure hizkuntza laudoriotzen ahoa betetzen duten egun hori! Gero, Nafarroan EITB 3 ikusiko dela eta asaldatuta daude eta Iparraldean baxoa euskaraz egiteko eskubidea ez duten ikasleen kexuen oihartzunarekin entzungor egiten dute! A! Baina, noski, bi

lurralde hauetan euskara ez da ofiziala. Jakina! Tira, EAEn bada eta ez gaude hobeto, administrazio publikoko lan deialdietan euskara ez da beharrezkoa, inposizioa omen, gainera. Azkenik, adibide gisa, atzoko eguna, abenduak 10, Giza Eskubideen Eguna, bizitza duin baten alde Bidasoa ibaia zubitik zein igerian gurutzatzen duten lagunei galdegin non dauden eskubide horiek eta azaldu iezaiezu zertan oinarritzen den ospakizun hau.

Egunero egin dezagun zerbait, edo bestela “gobernuz barneko erakundeen” partetik “indarkeriaren babeserako eguna” izaten jarraituko du egunero. •

Begirada iheskorrak

Antton Izagirre

Gure egutegian markatuak ditugun egunak datoz. Ziklo aldaketa nabarmenduko dute batzuek, neguko solstizioa. Ikuspegi erlijiosoa edo magikoa izango dute beste batzuentzat. Urtearen amaiera eta asmo berriak irudikatzeko garaia da askorentzat. Edozein kasutan, balantzeak egiteko erabiltzen ditugun egunak ditugu begi bistan.

Elkarte, enpresa eta erakundeek urteko balantze ekonomikoak egin eta aro berrirako proiektu, asmo eta ekimen berriak aurreikusiko dituzte. Irabaziak galeren gainetik jarri izanak aurrera begirako ikuspegi baikorra eskainiko die. Galerekin ez ixtea. Kasurik okerrean oreka bilatu nahi izango dute. Ur-

tea gutxienez zerotik hastea. Oreka izango da jomuga. Modu batean edo bestean kontuak orekatu egin beharko dituzte. Oreka lortzea, nolako burohaustea.

Gutako bakoitzak ere, gizabanako modura, izaten dugu urtaro honetan ziklo aldaketari begira jarri eta balantze pertsonalak egiteko joera. Kasu horretan ez dugu formula matematikorik kontuak ixteko. Kontua beste bat baita: nondik begiratzeko diozu bizitzari? Zein da zure begirada?

Konturatzen gara begirada erabat aldakorra izan daitekeela. Atzo zenuenak ez dizula gaurko balio edo agian bihar-ko aldatuko zaizula. Atzera eta aurrera-ko begiradak izaten ditugu alderagai

orainari begiratzeko, oreka lortu ote dugun galdetzeko.

Konturatzen gara, atzoko gogoeten kausa eta burutazioen zama zein arina izan daitekeen, egun batetik bestera bizitzari begiratzeko ikuspegia gertakari berri batek astindu, zapuztu, mudarazten digunean. Alderantziz ere bai beste askorentzat, aurrez bizi izan duten egoera zail horri aurre egin diotenean.

Erlatiboak dira gure begiradak, pitzatuak zenbaitetan, bizi eta gardenak askotan, iheskorrek edonola ere.

Zein da zure begirada? Nondik begiratzeko diozu bizitzari? Pentsatu nahi dut gure begirada ez dagoela zoriaren edo patuaren esku eta hautatuko dugula aurrean dugunari nola begiratu. •

DIONEWAR BISITAN

Plastikoa birziklatzeko makina ikustera, beste mundu bat ezagutu eta berea ezagutaraztera

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Hernaniko Orona Ideo campusean bisita berezia jaso zuten azaroaren 26an. Senegal-
dar talde bat joan zen Mondragon Unibertsitateko Industria Prozesuetako Ekoteknologieta-
ko Ingeniaritzako ikasleek diseinatu duten birziklatzeko makina ikustera. Dionewarko bisitari horiei euren irlako in-
gurumena zaintzen lagunduko dien makina da, hango itsasoko plastiko ugariak prozesatzeko prentsa, hain zuzen.

GAUR8k proiektuaren berri eman zuen joan den uztailan, prentsaren prototipoan hobe-
kuntzak egiteko fasean zirela, eta orain, dionewartarren bisita dela-eta, berriro hitz egin du Mondragon Unibertsitateko irakasle birekin: Angel Gallorekin eta Ekoteknologia Industrialak graduaren koordina-
tzaile Nuria Herreroekin.

Euskal Herrian eman dituzten egunetan, makinak nola-
koak diren ikusi, nola dauden osatuta, eta zerbait konpondu behar baldin badute nola egin ikasi zuten Dionewarko gazte-
ek. Beste alde batetik, euren lurraldeko beharren arabera zer pieza berri egin daitezkeen eztabaidatu zuten hemengo ikasleekin. Gallok dioenez, hori ez baitzeukaten oso argi, eta datorren seihilekoan ikasleek proiektua lantzen jarraituko dutenez, «pixka bat nondik jo» jakin nahi zuten.

Baldosak eta teilak egin izan dituzte Orona Ideon sortutako prentsarekin: «Guk horrelako gauza praktikoak egin izan ditugu. Beharbada momentu honetan ez daukate horren-
besteko beharrik zentzu horretan, baina irten zen ideietariko

Mondragon Unibertsitateko Ekoteknologieta-
ko Ingeniaritzako ikasleek plastikoa birziklatzeko prentsa bat diseinatu zutela jakin zuenean, Ndank Ndank elkarteak Dionewarren erabilgarri izango zela pentsatu eta harremanetan jarri zituen irla harekin. Hango gazte talde bat Hernaniko Orona Ideon izan da, makina ikusteko eta hemengo berri jaso eta hango berri emateko.

bat izan zen guk hemen erabil-
tzen ditugun biserak egitea, parte bat plastikozkoa dutenak, beraien estetika eta mol-
daera izango luketenak, baina plastikozko parte hori behar dutenak». Gauza batzuk guztiz dekoratiboak izan daitezke, beste batzuk funtzionalak, baldosak eta halakoak. Oraindik bideak aztertzen dabilta.

Beraz, formakuntza tekniko txiki bat jasotzera etorri ziren, proiektuaren alde hori berta-

tik bertara ezagutzera, baina baita hemengo kulturaren berri jaso eta eurenaren berri ematera ere.

ELKARREN BERRI JAKITEA

Izan ere, han nola bizi diren, hemengo gazteen eta haien arteko desberdintasunak ezagutzea ere bazen helburua, bi munduak harremanetan jartzeara, alegia.

Dionewar eta Ekoteknologia-
tako Ingeniaritza gradu-
ko

Euren lurraldeko beharren arabera zer pieza berri egin daitezkeen aztertu zuten hemengo ikasleekin.
Gorka RUBIO | FOKU

ikasle eta irakasleen arteko harremana 2019an hasi zen. Ndank Ndank elkarteak Deba-
goienaren eta Senegalgo Dionewar irlaren artean lokarri sendoak eraikitzen ari denak, Ekoteknologieta-
ko Ingeniaritzak plastikoa birziklatzeko prentsa egiteko proiektuaren berri izan zuenean, haiengana jo zuen. Elkarte-
ko kideak Dionewarren izan ziren eta baze-
kiten han arazoak zituztela plastikoe-
kin. Gallok dioenez, pixkanaka ohartzen joan ziren ez zutela makina batera muga-
tu behar, baizik eta proiektua beste eremu batzuetara eramatea komeni zela.

Ndank Ndank elkartearen helburuetako bat Senegaldik jendea ekartzea zen, hemengo errealitatea ezagut zezan. «Haiek hau, Europa, oso idealizatuta daukate, eta hemen benetan nola bizi garen eta beste etorkin batzuek zer-nolako zailtasunak izan dituzten jakitea nahi genuen, gero, gazte horiek etxera bueltatzean, hemen ezagutu dutena kontatu dezaten», dio Herrero-
k.

EZ DA NORANZKO BAKARREKOA

Astlehena irakasleekin eman zuten Senegalgo bisitari-
ek. Eureka zientzia museora eta Txillida Lekura joan ziren, eta hainbat gauza hitz egiteko aukera izan zuten. Modu ez-
ofizialean etortzen direnak oso gaizki pasatzen dutela jakinda, modu ofizialean etortzea nolako izango litzateke-
en jakin nahi zuten, masterren bat eginda, esate baterako. «Guk esan genien masterrak egiteko titulu ofizialak eskatzen direla, eta ez dela hain erraza, dirua ere behar dela», gogoratu du Herrero-
k.

Irakasleok nabarmendu du-
tenez, proiektu honen filoso-
fia, Ndank Ndank elkartearena




bezala, ez da zerbait sortu eta senegaldarrei edo beste norbaiti ematea, «ez da noranzko bakarreko zerbait, ulertzen dugulako hori ez dela arazoak konpontzeko bidea. Proiektu honen helburuetako bat da teknologia bat abian jartzen irakastea, hemen garatu ditugun gauza batzuk haiei erakustea, nola egin dugun eta zergatik egin dugun, baina gero eurek hobetzea, ikastea nola egiten den eta eurek garatzeko aukera hori ematea», azaldu du Gallok. «Euren ingurunea garbitzeko aukera ematen die proiektuak, eta are nolabaiteko industria txikitxo bat abian jartzeko».

Ingeniaritza eskola bat direla baina nolabaiteko helburu soziala ere badaukatela nabarmendu du Herrerok: «Gure helburuetariko bat da erakustea nola ingeniaritzak pertsonen bizi kalitatea hobetzeko ere balio dezakeen, eta kasu honetan era oso zuzenean. Horregatik, elkarrearekin daukagun harremana ez da proiektu bakar batera mugatu, baizik eta lan ildoak daukagu». Ikasleek azaroan elkarrekin egin duen dokumental baten proiektzioa ikusi zuten etorkinen arazoak ezagutzeko, eta lagun baten lehen eskuko testigantza ere entzun zuten.

IKUSPUNTU INTEGRALA

«Guk hemen daukagun tituluak Ekoteknologia Industriala du izena, eta jorratzen ditugun proiektuek 'eko' puntu bat izan behar dute, jasagarritasun ekologikoaren inguruko puntu bat», dio Gallok. Proposatu zieten lehenengo proiektu horretaz gainera, bidean beste batzuk sortu dira. Orain lehenengo mailako ikasleekin beste proiektu bat garatzen hasi dira argia doan lor-



Oso giro onean igaro ziren bisita egun biak.
Gorka RUBIO | FOKU

tzeko, inolako kutsadurarik gabe. Herrerok dio teknologiak beharrezkoak direla, «produktuak sortzea beharrezkoa dugu eta egin behar duguna da produktu berdinak sortu, baina ingurumenean daukaten inpaktua murriztuz. Gure produktuek lehiakorrak izan behar dute bai teknikoki bai ekonomikoki, baina baita ere inguruneari dagokionez». Ikuspegi integral horrekin lan egiten dute gradu horretan.

«Guk uste dugu pertsona batek ingeniari bat kontratatzen

duenean aintzat hartuko duela ezagutza teknikoak badituela, eta gure ikasleek badituzte; gainera, guk gure ikasketa planak beti enprekin kontrastatzen ditugu. Azkenean, enpresek behar ez duten profil bat sortzeak ez dauka zentzurik; orduan, industriarekiko hartueman horrekin, gure industriak, gure enpresek behar dituzten profilak sortzen ditugu, baina horretaz gain, baloratu behar gaituzte beste gauza batzuegatik: nola egiten dugun talde lana, nola komunikatzen ditugun gure ideiak, nola konpontzen ditugun arazoak... Aspaldi hasi ginen beste metodologia batekin, eta horrekin gaitasun teknologikoa ez ezik, zeharkako kompetentziak ere garatzen ditugu», azaldu du Herrerok.

«Esaten da ingeniariok bu-
rua oso karratua daukagula eta gauza batzuez bakarrik pentsatzen dugula... eta egia da, ho-

rrelakoak bagara –dio Gallok barrez–, baina beste ikuspegi hori, sozialagoa, gizarteak dauzkan ardurei kasu egitea eta horiek uste dugu ezin ditugula ahaztu».

Bisitari senegaldarrek oso positiboki baloratu zuten hona etorri eta ikasleekin egon izana, haiekin hitz egitea eta euren bizimodua kontrastatzea. Euren adineko jendearekin oso gustura egon zirela eta oso aberasgarria izan zela esan zieten irakasleei. Aberasgarria denentzat, Herrerok dioenez, ikasleak ere hunkituta geratu baitziren, eta horrelakoak mairago egiteko eskatu baitzieten. «Baina astero ezin da egin».

Hasieran beldur pixka bat ere bazuten, gogoratu dutenez, ez ote ziren batzuk eta besteak lotsatuko: «Bi mundu ezberdin dira eta hizkuntzekin ere zailtasunak daude... baina oso giro onean amaitu zuten, poz-
pozik».

Formakuntza tekniko txiki bat jasotzera etorri ziren, proiektuaren alde hori bertatik bertara ezagutzera, baina baita hemengo kulturaren berri jaso eta eurenaren berri ematera ere

«Gure industriak behar dituen profilak sortzen ditugu, baina beste gauza batzuegatik ere baloratu behar gaituzte: nola egiten dugun talde lana, nola komunikatzen ditugun gure ideiak...»

**Txelo Ruiz eta Montse Maritxalar**

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlariak, UPV/EHU

Adimen artifiziala sentimenduetan

Datifikazioaren bitartez fenomeno bat ikuspuntu kuantitatibo batetik adierazten da haren analisia egiteko asmoz.

Gaur egun, gizartearen datifikazioa geldiezinezko fenomeno da; gure eguneroko erosketen jarraipena edo bisitatutako tokien historikoa gordetzeko geoposizionamenduaren erabilera horren adibide dira.

Datuen tratamendu masiboaz baliatzen dira adimen artifizialean gero eta garatuagoak diren teknikak. Hasiera batean, adimen artifizialak erregela deterministikoetan oinarritutako teknikak erabiltzen zituen; ondoren, ikasketa automatikoaren bitartez, datu multzo handiak masiboki entrenatzeko algoritmoak garatu ziren, algoritmo horien bitartez patroiak identifikatuz. Eta, azkenaldian, ikaskuntza sakonaren bidezko teknikak izan dira adimen artifizialaren izarrak: neurona-sare sakonak. Neurona-sareek adibideen bidez ikasten dute, ataza edo zeregin konkretu baterako bereziki programatuak izan gabe, eta nerbio-sistema biologikoetan gertatzen diren komunikazio-ereduetan oinarrituta daude informazioaren prozesamendua egiteko. Horren adibide dira itzultzaile automatiko neuronalak: itzulpenak automatikoki egiteko, hainbat hizkuntzatan dauden testuen corpusetan oinarritzen dira.

Administrazioan edo hezkuntza arloan gabiltzanontzat aurrerapen handia izan dira horrelako itzultzaile automatikoak testu elebidunak idazteko unean, oso lagungarriak baitira. Hala ere, egunerokotasunean testu elebidunak sortzeko momentua heltzen denean erabiltzen dugun lehen hizkuntza zein da? Tamalez, kasu askotan euskal hiztunak dira testuak gaztelez sortu ondoren itzultzaile automatikoa erabiltzen dutenak euskarazko bertsioa idazteko. Portaera hori areagotuko balitz, itzultzaile automatiko-

ek sortutako gero eta testu gehiago nahastuko lirateke corpusetan hiztunek jatorriz idatzitakoekin batera, eta makinek orain arte ikasteko erabili ohi dituzten euskal corpusak gizakiok idatzitakoak izan badira ere, etorkizuneko itzultzaile automatikoei gizakiok zein makinek sortutako testu nahastuez sortutako corpusak erabiliko lituzkete ikasteko. Hortaz, zenbateraino modelatuko dute gizakion hizkuntza etorkizuneko itzultzaile automatikoei? Sentitzen dugun hizkuntzak munduaren eraldaketa digitalean duen eragina eta eraldaketa digitalak hizkuntzan duen eragina: eragin sentimentala?

Datu masiboen tratamendua ez da soilik mugatzen izatez datu hutsek definitzen dituzten egoeretara, giza esperientziak ere datifikatzen baitira. Horretaz arduratzen da, hain zuzen, adimen artifizialean gero eta garatuagoa den sentimenduen analisia. Euskal Wikipediaren arabera, sentimenduen analisia, iritzien meatzaritza, edo emozioen adimen artifiziala egoera afektiboak eta informazio subjektiboak aztertzeko zenbait tresna erabiliz egindako analisia da. Horretarako, besteak beste, hizkuntzaren prozesamendu automatikoa erabiltzen da. Hainbat enpresak horrelako teknikak erabiltzen dituzte bezeroen iritziak positibo, negatibo

edo neutralak diren automatikoki sailkatzeko.


Hizkuntzaren prozesamendua erabiltzeaz gain, biometria ere erabiltzen da adimen artifizialaren teknikan. Izaki bizidunen edo prozesu biologikoen neurri estandarizatuak hartzei biometria deritza, eta informazioaren teknologian biometria informatikoa aurkitzen dugu, non matematika eta estatistika teknikak erabiltzen baitira banakoen ezaugarri eta portaerak aztertuta indibiduo horien autentifikazioa egin ahal izateko. Gizakion kasuan, badira norbanakoa irudien bitartez identifikatzeko teknikak oso garatuak, baita gizakiaren kasuan gogo-aldarteak detektatzeko ere, gorputz-adierazpenak oinarri; baina gogo-aldarteek adieraz ditzaketan sentimenduak benetan identifikatzerik al dago adimen artifizialaren bitartez?

Errealitate fisiko eta dimentsio subjektiboen abstrakzioa geldiezinezko olatua da bizi dugun tsunami digital honetan: adimen artifizialak sentimenduetan eragin, sentimenduen analisia egin adimen artifiziala erabiliz edo gogo-aldarteek gordetzen dituzten benetako sentimenduak... Nork daki artikulu honen irakurle horri izenburua irakurri orduko zer etorri zaizun burura, baina artikulua irakurri ondoren bestelakoak etorri bazaizkizu gogora, ongi etorriak. •



BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JEAN PIERRE ERGUY. MÉDIATHÈQUE DE BAYONNE

EZKONTZA NAFARROA BEHEREAN, 1900EAN

Artikulua ilustratzen duen argazkiak Nafarroa Behereko Aintzila herrian 1900 inguruan izandako ezkontza baten ospakizuna erakusten du. Ezkondu berriak eta gonbidatuak argazkilariaren aurrean paratu dira. Lehen lerroan, idi apainduak tiratu eta altzariz kargatutako hiru gurdi; gurdietako baten ondoan, besteak beste, senarra ageri da arotz zerra batekin, eta beste baten ondoan, emaztea, ispilu bati eusten. Bigarren planoan, emakume batzuk gonbidatuen opariekin ageri dira, otarreak buruan dituztela. Beste batzuk Nafarroa Behereko ezkontzetan ohikoa den katalabrox batekin ageri dira. Katalabroxa pinu itxurako pastela zen, sagar batez koroatua, eta eztei oturuntzako mahaian apaingarri eta postre gisa erabiltzen zen. Jean Pierre Erguy argazkilariak, konposizio zainduan, kokatu egin zituen gonbidatuak eszenan, nahiz eta batzuk ia konturatu gabe agertu ziren, hala nola bertsolaria kantuan edo jendarmea egunkaria irakurtzen, eta agertokiaren parte gisa, ikusleak toki ilunenetan jarri zituen. Artalde txiki bat ere badago gurdietako baten atzean. Erguy 1880an Donibane Garazira joan zen bizitzera, eta haren lanak XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Nafarroa Behereko landa bizitza bildu zuen batez ere.

GAUR8

ireki gure leihoa

